# DONOSTIAKO UDALAREN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

## 2014-2018

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasun Bulegoa
Negociado de Igualdad

Izenburua:
DONOSTIAKO UDALAREN EMAKUMEEN ETA GIZONEN III. BERDINTASUNERAKO PLANA

- Donostiako Udalak egina
- Berdintasun Bulegoak koordinatuta
- Laguntza teknikoa: Eraberria Aholkularitza

*Tokiko Gobernu Batzordeak 2014ko apirilaren 25ean onartua*

# AURKIBIDEA


Ezinbesteko tresna........................................................................................ 1

1. Sarrera........................................................................................................ 2
2. Aurrekariak .................................................................................................. 4
3. Lege Esparrua ............................................................................................. 5
4. Lantze Prozesua ......................................................................................... 8
5. Egiturak ...................................................................................................... 10
6. III. Planaren diseinua ................................................................................. 11
7. Esku hartze lerroak ..................................................................................... 13
    - 1. Lerroa: Gobernantza ............................................................................ 13
    - 2. Lerroa. Zaintza Erantzukideak .............................................................. 34
    - 3. Lerroa. Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea ... 43
    - 4. Lerroa. Jaiak eta kultura ez sexista ...................................................... 52
    - 5. Lerroa: Ohitura osasuntsuak eta kirola ................................................ 60
    - 6. Lerroa: Emakumeen parte hartze soziopolitikoa eta ekonomikoa........................ 67
    - 7. Lerroa: Autonomia eta norberaren boterea .......................................... 78
8. Komunikazio Plana ...................................................................................... 89
9. Ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa ........................................................ 90

# EZINBESTEKO TRESNA

Hurrengo bost urteetan zehar emakumeok jasaten dugun diskriminazioari aurre egiteko eta emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko Udal honek izango duen tresna garrantzitsuena duzue esku artean.

Gure amonen garaitik, belaunaldi pare batean, emakumeon bizi baldintzak asko aldatu dira, eskubide zibil eta politikoak irabazi ditugu, eta espazio publikoa gureganatzen ari gara. Etxeko lanak eta zaintza denon ardura direla ere sozializatu dugu. Emakume mugimenduek eta feministek urte luzez egindako lanaren emaitza izan dira lorpen hauek, eta instituzioen lana, jendarte parekidea lortzearen bidean, ahalegin hau aitortzea, babestea eta sustatzea da.

Aldaketa azkar hauek, ordea, berdintasunean bizi garenaren sinesmena sor dezakete. Sexuen arteko aukera berdintasuna, ordea, ez da benetakoa. Bestela, Donostian pobrezian bizi diren lau pertsonetatik bat ez litzateke emakumea izango; bestela, bost emakume donostiarretik batek ez lituzke sexu erasoak pairatuko. Oraindik asko dago egiteko, eta bizitzaren egunerokotasunean aukera berdintasuna lortu arte denon lana eta konpromisoa behar dugu.

Donostiak Berdintasun plan bat behar izaten jarraitzen du. III. Plana 2014tik 2018 bitarteko iraupena izango du eta orain arte egindako lanari jarraipena ematen dio. Oraingo honetan, ordea, beste urrats bat eman dugu, plana diseinatu eta aurkezteko moduan beste ikuspuntu bat txertatu baitugu, beti ere, eraginkorragoa izan dadin. Plana udal departamentuka antolatu beharrean, berdintasuna lortzeko esparruen arabera antolatu da.

Zazpi esparru zehaztu ditugu: Gobernantza, hau da, gobernatzeko moduan zeharkakotasuna izango dugu ardatz, genero perspektiba aintzat hartuz; Zaintzaren erantzunkidetasuna; Indarkeri matxistarik gabeko ingurune jasangarria; Festa eta kultura ez sexistak; Ohitura osasuntsua eta kirola; Emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomikoa; eta, azkenik, Autonomia eta norberaren boterea.

Zazpi esku hartze esparru hauen bidez, administrazioaren atal eta maila guztien inplikazioarekin, eta jakina, gizarte zibiletik berdintasunaren alde lanean ari diren kolektiboekin, hiri parekideago bat lortzeko III. Berdintasun Plan hau bitarteko baliagarria izatea espero dut.

Jarrai dezagun denon artean berdintasuna eraikitzen.

**Naiara Sampedro**

**Donostiako Udaleko Berdintasun zinegotzia**

# 1. SARRERA



Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak bide handia du egina honez gero, eta kontestatu ezinezko zerbait dugu egun emakumeen presentzia nabarmen emendatu dela azkenaldi honetan, gizarte esparru guztietan (ekonomian, gizartean, politikan eta abarretan).

Baina XXI. mendean bete-betean gauden honetan, lehengo berean segitzen dute desberdintasunek eta emakumeak, legez eta egitez, diskriminatzen diren egoerak. Egunoroko bizitzako araupeko instantzietatik hasi eta gizarte esparru guztietatik segi, badira oraindik ere hautsi ez diren hesiak. Eta arlo horretan ez da Donostia salbuespena (ikus Donostiako emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa 2013).

Bizi garen gizarteak, denboran zehar gurean eta planetako beste leku anitzetan izan diren beste askoren antzera, sistema patriarkalean ditu oinarriak. Gizarte antolakuntza molde horren arabera, gizonen esku daude, guztiz edo gehiengo batean, botere postu nagusiak edo garrantzitsuenak, arlo politikoan, ekonomikoan, erlijiosoan eta militarrean. Egoera honen aurrean, emakume zapalduen berdintasuna aldarrikatu du emakume herritarren mugimenduak Frantziako

Iraultzaren hasierako garaietatik, eta horregatik agertzen eta borrokatzen dira emakumeak beren herritartasun eskubideen alde, legearen aurrean berdinak direla aldarrikatuz. Mendebaldeko aurreneko mugimendu antolatu, askatzaile eta aldarrikatzaile horren ekinetik aurrera, instituzioei ere ekin diete mugimendu feministek injustizia eta diskriminazioa eragiten dituzten egitura horien aurrean duten erantzukizuna dela-eta, kontuan harturik egitura bidegabe horiek herritar guztiengan duten eragina.

Arazo hau dela kausa, Donostiako Udalak, donostiar guzti-guztien alde jokatu beharra duen herri administrazioa den aldetik, bere egin du halaber berdintasunaren alde diharduten politika publikoak bultzatzeko ardura, hirian gizarte aldaketa lortzeko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak agintzen duen bezala. Eta xede horri begira hornitu da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plan honetaz, berdintasunaren alde aurrez eginiko lanari segida emateko eta, horrenbestez, arlo honetan aurrera egin ahal izateko, bide honetatik jarraiturik lortu ahal izango baita bizi maila hobeago bat, emakumeentzako ez ezik Donostiako herritar guztientzako ere.

Horretarako, generoaren araberako ikuspegiaz baliatu nahi izan du Berdintasunerako III. Plan honek, funtsezko tresna baita hori desberdintasun eta diskriminazio egoerak hauteman, diagnostikatu eta ezabatzeko. Simone de Beauvoir-ek esan zuen bezala, ‘emakumea ez da sortzen, egiten baizik’. Eta eraikuntza lan hori bidegabeki egin da, gizonak gizon izate hutsagatik pribilegioz horniturik eta emakumeak mendekotasunean ezarririk. Generoaren araberako ikuspegiaz begirada aberatsagoa, osoagoa eta integralagoa luzatu ahal izango dugu bizi garen gizarte errealitatearen aurrera. Gizonez eta emakumez mintzo garelarik, historian barrena aldatuz joan diren kategoria eraiki batzuez mintzo gara. Beraz, feminismoak berdintasunaren aldeko borroka bere adiera inklusiboenean eramateko betidanik izan duen bokazio garbiaz, zalantzan jartzen ditugu kategoria hauek, muga hertsi horiek hautsi eta generoaren araberako arau binaristak, mugimendu feministaren gehiengo zabal batek dagoeneko zalantzan jarri dituenak, bazterrean uzten dituen beste nortasun mota batzuk ere kontuan hartzeko.

Azkenik, oinarri sendo eta malgu batzuk errealitate zehatzarekin lotzearren, Berdintasunerako III. Plan honek Donostiako emakumeak eta, oro har, herritar guztiak bete-beteko eraginpean dauzkaten arloak eta esparruak landuko ditu bereziki. Bereziki hartuko ditu kontuan politika publikoak eta bertako instituzio nagusiaren antolakuntza eta gobernantza izango dira ekimen horien lehenengo jomuga. Beharreko zaintza-neurri arduratsuak hartuko dira horretarako. Kultura ez sexista bultzatuko da, jaiak eta ospakizunak bezalako agerraldi esanguratsuak bereziki zainduz. Ohitura osasuntsuak bultzatuko dira eta kirol partaidetza sustatu, horixe baita emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun sinbolikoak eta errealak jokaleku dituen zelai garrantzitsuenetako bat. Emakumeen esku hartze soziopolitikoa eta ekonomikoa garatuko da, eta haien autonomia bereziki sustatu.

Hainbestean, hiri begirunetsuagoa, justuagoa eta demokratikoagoa bultzatuko du Berdintasunerako III. Plan honek herritar guztientzat. Hiri libreago bat, hain zuzen ere.

# 2. AURREKARIAK

## DONOSTAKO UDALAREN IBILBIDEA BERDINTASUNAREN ALDEKO POLITIKEN ARLOAN

Donostiako Udalak azkenaldi honetan Berdintasunaren alde garatu dituen politiken esparruaren barnean ulertu beharra dago inolaz ere Donostiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana.




1997-2000 bitartean egon zen indarrean Donostiako Udalaren I. Berdintasun Plana.

UPV-EHUko Psikologia Sozialerako Departamenduari I. Plan honekin loturiko bi azterlan eskatu zitzaizkion. Bada, haien ustetan, Donostiako Udalean orduan berdintasunaren arloan ganoraz lan egiteko aurrez beharrezkoak diren baldintzak ez ziren orduan betetzen eta, horrenbestez, udal langileak hasi ziren arlo honetan trebatzen, II. Planaren erredakzioari ekin aurretik.

Hiriko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa egin zen 2006. urtean.

2008-2013 bitartean garatu da **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana**.

Epe horren hasieran aldaketa garrantzitsuak izan ziren Berdintasun Bulegoan. Langile berriak hasi ziren lanean eta berdintasunerako politikak bultzatzearen aldeko apustua egin zen maila politikoan bezala maila teknikoan.

Zeharkako Neurrien Jarraibidea onartu zen 2010ean. Haren bitartez, Udalaren osoko jardunera zabaldu ziren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aginduriko oinarrizko neurriak.

2010eko azaroan zabaldu zen Donostiako Emakumeen Etxea, gune guztiz erabakigarria emakumeen esku hartzeari begira.

Udalaren eta Emakumeen Etxea Elkartearen kogestio eredu baten bitartez arautua da Emakumeen Etxea, Toki Gobernurako Batzarrak erabiltzen uzteko onartu zuen hitzarmenaren bitartez

Bi **diagnostiko** eta **sektore plan** egin ziren 2011n:

- Emakume eta gizonen egoeraren diagnosia eta lan ildoak Donostiako kirol esparruan.
- Donostiako Zaintzaileen Diagnostikoa eta Udal Babes Plana.

**Donostiako emakume eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa** bururatu zen 2012an.

Eta 2013an ekin zitzaion **Berdintasunerako II. Plan 2008-2013 honen ebaluazioari**, guztiz azpimarraturik udal kudeaketan generoaren zeharkako izaeraren zabaltze lanean eginiko aurrerapenak.

# 3. LEGE ESPARRUA

## EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN LEGE ETA ESKUDUNTZA OINARRIAK

### Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea

Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana Eusko Legebiltzarrak 2005ko otsailaren 18an Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako onartu zuen 4/2005 Legean zehazturiko eskuduntza esparruaren barnean garatuko da.

Aipaturiko Legearen I. Tituluak, bere I. kapituluaren 7. artikuluan, "Tokiko Administrazioen eginkizunak", zehazten ditu **Tokiko Administrazioari emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dagozkion eginkizunak**:

1.- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, bai banaka, bai partaide diren udal-mankomunitateen bidez edo lege honetako xedeetarako eratzen dituzten mankomunitateen bidez, ondoko eginkizunak betetzea:

a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.

b) Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.

c) Toki-eremuan programak egitea, Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta foru-aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.

d) Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonek bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.

e) Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.

f) Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.

g) Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.

h) Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.

i) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.

j) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.

k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

l) Toki-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.

m) Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakiokeen beste edozein eginkizun betetzea.

Era berean, 4/2005 Legearen I. Tituluak bere II. Kapituluan, “Euskal Herri Administrazioen arteko erakunde antolaketa eta koordinazioa”, I. Atalaren 10. Artikuluan zehazten ditu tokiko administrazioen eginkizunak berdintasunaren arloan:

1. Foru- eta toki-administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzeko dituen eskumenen eremuan, beren egiturak egokitu behar dituzte, halako moduz non administrazio bakoitzak emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak bultzatu, programatu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak ematen jardungo duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat izango baitu, gutxienez, dagokion jarduera-eremuan.
2. Erakunde, organo edo administrazio-unitate horiek, bakoitzak bere lurralde-eremuan, gutxienez ondoko eginkizunak beteko dituzte:

a) Berdintasunaren alorrean programak eta plangintzak diseinatzea, bai eta horiei dagozkien jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ere.

b) Ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta sustatzea.

c) Bakoitzak bere administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzeko sustapen-lana bultzatzea, maila guztietan eta fase guztietan.

d) Bakoitzak bere administrazioko sailei eta beren mendean dauden gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz aholkularitza ematea eta lankidetzan aritzea.

e) Bakoitzari dagokion lurralde-eremuan bizi diren herritarrentzat sentsibilizazio-jarduerak egitea emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriez, bereizkeria anitzeko egoerak aintzat hartuta.

f) Bakoitzak bere administrazioan berariazko programak edo zerbitzuak egokitzeko eta sortzeko proposamenak eta sustapen-lana egitea, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideak izango dituztela bermatzeko.

g) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzeko gizarte-baliabide eta zerbitzuak sortu eta egokitu daitezen proposamenak eta sustapen-lana egitea.

h) Bakoitzaren lurralde-eremuan gertatzen diren bereizkeria- egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak diseinatzea eta sustatzea.

i) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

j) Bakoitzaren administrazioari atxikitako langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten prestakuntza-beharrizanak diagnostikatzea, eta kasu bakoitzean behar den prestakuntza-mota eta prestakuntza hori jasotzeko irizpideak eta lehentasunak proposatzea

k) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumenak dituzten erakunde, organo eta unitateekin, eta, bereziki, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin, solaskidetza izatea.

l) Lege honetan jasotzen den edo beren eskumen-eremuan agindu dakizkiekeen beste edozein eginkizun burutzea.

# Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, bere 15. artikuluan, zehatz-mehatz agintzen dio Eusko Jaurlaritzari legegintzaldi bakoitzean Berdintasunerako Plan bat onesteko, euskal botere publikoek berdintasunaren arloan bideraturiko jarduerak modu koordinatu eta globalean jaso ditzan. 2013ko abenduan onartu zen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana, honako bi esparru handi hauetan egituratzen dena:

Berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurriak. Hamahiru neurri Euskal Herri Administrazioan berdintasunaren aldeko oinarriaren integrazioa bultzatzeko.

- G1. Berdintasunerako plangintza areagotzea eta hobetzea.
- G2. Berdintasunerako unitate administratiboak sortzea eta indartzea.
- G3. Berdintasunerako koordinazio-egiturak sortzea eta indartzea.
- G4. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.
- G5. Prestakuntza jardueretan genero ikuspegia sartzea.
- G6. Enplegu publikora sartzeko eta bertan sustatzeko hautaketa prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea.
- G7. Hizkuntza eta/edo beste komunikazio-elementu batzuk modu ez-sexistan erabiltzea.
- G8. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.
- G9. Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea.
- G10. Sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia sartzea.
- G11. Kontratu, diru laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.
- G12. Epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatzea.
- G13. Kontsultarako eta parte-hartzeko organoetan genero-ikuspegia sartzea.

Esku hartzeko ardatzak berdintasunaren arloan. Hiru esparru nagusi berdintasunaren arloan, eta zortzi berariazko programa.

I. Ardatza. **Balioen Aldaketa eta Emakumeen ahalduntzea**

- 1. Programa: Balioen aldaketa
- 2. Programa: Ahalduntze pertsonalaren aldeko laguntza.
- 3. Programa: Ahalduntze kolektiboaren aldeko laguntza.
- 4. Programa: Ahalduntze sozial eta politikoaren aldeko laguntza

2. Ardatza: **Gizarte antolamendu erantzukidea**.

- 5. programa: Erantzukidetasuna eta denboraren erabilera berriak
- 6. Programa: Uztartze erantzukidea

3. Ardatza: **Emakumeen aurkako indarkeriaren desagerraraztea**

- 7. Programa: Sentsibilizazioa eta prebentzioa
- 8. Programa: Atzematea eta arreta

EAEko Berdintasunaren aldeko legeria eta plangintza hauetara biltzen da Plan honen esparru arau-emailea eta estatuan, Europan eta nazioarteko mailan azken urteotan berdintasunaren aldeko politiken arabera garatu diren lege esparruen barnean dihardu era berean.

Honez gainera, erreferentziazko esparrutzat hartu da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana, arau eta lege testuinguru berberean diseinatua.

# 4. LANTZE PROZESUA

## EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN

2013ko maiatzean abiarazi zen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana lantzeko prozesua. Berdintasun Bulegoak gidaturiko prozesua parte hartzailea izan da; hartan parte hartu dute Udaleko langileek, hiriko mugimendu feministak eta emakume elkarteek, Berdintasunaren aldeko Donostiako Emakumeen Kontseiluak eta emakume banakoek.




**Maiatza - Ekaina**

- **Berdintasun Bulegoko teknikariek eginiko azterketa,** Berdintasunerako II. Plana eta berdintasunaren aldeko politiken bultzadan tresna horrek eduki duen garrantzia ebaluatu eta gero. Beste ondorio batzuen artean, argi eta garbi ikusi da beharrezkoa dela egitura aldatzea (6. Atala) eta III. Plana bere indarraldian tresna ulertzen erraza, agerikoa eta aldaketetara irekia izango delako iritzia sendotu da.
- **Lege esparruaren azterketa.** Garai hartan zirriborroa baizik ez zen EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planean jasoriko agindu juridikoak hartu dira aintzat.

**Abuztua**

- **Berdintasun Bulegoak esku hartze lerroetarako proposamena egin du.** Berdintasunerako politiken arloan udalaren esku hartzea ezinbestekoa izango den esparruak zehaztu ditu proposamenak.

**Iraila**

- Lan saio batzuetara deitu izan dira **Berdintasunaren aldeko Donostiako Emakumeen Kontseilua, talde feministak eta emakume elkarteak**, esku hartze lerroak kontrastatu eta horietako bakoitzean aintzat hartu behar diren helburuak eta neurriak proposatzeko.





**Urria**

- Lan saio batera deitu izan dira **II. Planaren Kudeaketa, Koordinazio eta Jarraipenerako Batzorde Teknikoa eta arloen arteko lanean ari diren pertsonak eta taldeak**, zehazturiko esku hartze lerroak arloen arteko ikuspegiaz aztertzeko eta helburuak eta neurriak proposatzeko.

**Azaroa-abendua**

- **Berdintasun Bulegoko teknikariek esku hartze lerroak garatu dituzte**, horietako bakoitzerako helburuak, neurriak eta ekintzak zehaztuz.

**Urtarrila**

- Lan talde txikiagotan deitu izan dira **II. Planaren Kudeaketa, Koordinazio eta Jarraipenerako Batzorde Teknikoa eta arloen arteko lanean ari diren pertsonak eta taldeak**, esku hartze lerroak garatu ondoan lana berriro ere kontrastatzeko.
- Lanaren dokumentua helarazi zaie, ekarpenak egin ditzaten.



**Otsaila**

- **Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren betiko dokumentua** prestatu da.
- Talde feministei eta emakumeen elkarteei helarazi zaie, ekarpenak egin ditzaten.
- **Emakunderen esku utzi da dokumentua,** haren gaineko txostena egin dezan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 15.4 artikuluak xedaturikoari jarraiki.

**Apirila**

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2014-2018 bitarteko III. Planaren onarpena.

# 5. EGITURAK

## DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN KUDEAKETARAKO

### Berdintasun Bulegoa

Donostiako Udaleko Berdintasun Bulegoak bere gain hartzen du Berdintasunerako III. Plan honen diseinua, haren ezarpen eta garapenaren bultzada eta haren emaitzak ebaluatzeko erantzukizuna. Gai honetan prestakuntza berezia duten lau Berdintasun Agentez, (EHUko Emakume eta Gizonen Berdintasunaren Gaineko Masterra) idazkari batez eta arloburu batez osatuta dago. % 100ekoa da langile guztien dedikazioa.

### Instituzioek bultzaturiko egiturak

Alkatetzaren Ebazpen bat dela medio, arloen arteko koordinaziorako bi egitura sortu ziren 2006an, berdintasunaren aldeko politiken garapenari begira. 2010eko otsailean, Alkatetzaren ebazpen baten bitartez zehaztu ziren batzorde horien eginkizunak, haien jarduera bultzatzeko eta indartzeko.

- **Berdintasunerako Planaren Eredu, Koordinazio eta Jarraipenerako Batzorde Teknikoa**
  Hartara biltzen dira arlo bakoitzeko teknikarien ordezkariak.
- **Berdintasunerako arloen arteko Batzorde Politikoa eta Teknikoa**
  Hartara biltzen dira Planarekin zuzenean loturiko arloetako politikari arduradunak eta arlo horietako zuzendaritzak.

### Lankidetza eta Gizartearen Partaidetzarako egiturak

- **Donostiako Berdintasunaren aldeko Emakumeen Kontseilua.**
  Talde feministek, emakumeen elkarteek eta Berdintasun Bulegoak osatua da, berdintasunerako udal politiken diseinuan parte hartzen du eta berdintasunarekin eta emakume donostiarren errealitatearekin loturiko gaiak aztertzen ditu.
- **Emakumea eta Hiria Foroa**
  Tradizioz gizonen esku egon diren gaietan emakumeen esku hartzea bideratzen duen lan taldea. Hona hemen gai horietako batzuk: hiriaren antolakuntza eta gure hiriko zerbitzuen mantentzea.
- **Emakumeen Etxearen Jarraipenerako Batzordea**
  Berdintasun Bulegoak, Donostiako Berdintasunaren aldeko Emakumeen Kontseiluak, Emakumea eta Hiria Foroak eta Emakumeen Etxea Elkarteak osatua da eta gune hori koordinatzen dute bitariko kudeaketa eredu baten bidez.

### Instituzioen arteko Lankidetza eta Koordinaziorako Egiturak

- **Berdinsarea.**
  Donostiako Udala Berdinsarea – Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako Euskal Udalerrien Sareko partaidea da 2006an sortu zenetik. Sare horren egitekoa da tokiko administrazioetatik helburu horri begira kudeaturiko programak eta zerbitzuak bultzatzea, indartzea, koordinatzea eta ebaluatzea.
- **Gipuzkoako Berdintasun Teknikarien Sarea.**
  Gipuzkoako berdintasun teknikarien artean sorturiko lan gunea, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatua. Haren helburua da udalerrietako lana sendotzea eta gogoeta eta talde jarduna lurralde ikuspegitik bideratzea.

# 6. III. PLANAREN DISEINUA

## DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN

Zazpi esku hartze lerroren inguruan egituratu da Donostiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana. Lehenengo lerroak Berdintasunaren aldeko Gobernantza du helburu, hau da, Berdintasunerako oinarriak Udalaren erakunde eta politiketan txertatzea da haren xedea, horrenbestez lortuko baita esku hartze publiko eraginkorragoa, sinesgarriagoa eta berdinzaleagoa. Gainerako 6 lerroek egunoroko bizitzako esparruetan dute jokalekua, ezinbestekoa baita esku hartze publikoa generoaren araberako hausturak murriztuko badira eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean aurrera egingo badugu.

**ESKU HARTZE LERROAK**

1. GOBERNANTZA
2. ZAINTZA ERANTZUKIDEAK
3. INGURUNE IRAUNKORRA ETA INDARKERIA MATXISTARIK GABEA
4. JAIAK ETA KULTURA EZ SEXISTA
5. OHITURA OSASUNTSUAK ETA KIROLA
6. EMAKUMEEN PARTE HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA EKONOMIKOA
7. AUTONOMIA ETA NORBERAREN BOTEREA

Aurreko bi Berdintasunerako Planen aldean egitura mailan bideratu den aldaketa honen bidez, Udalaren berdintasunaren arloko esku hartze publikoaren erdian kokatu nahi da gizarte aldaketarako desafio hau, desberdintasun egoeren aurreko eta Berdintasunerako Planaren sustapenerako neurrien eta erabakien eragina geroz eta handiagoa izan dadin.

Honako eskema honen arabera zehaztu da esku hartze lerro bakoitza:

# ESKU HARTZE LERROA

AURKEZPENA: Esku hartze lerroaren deskribapen laburra

helburuak

Esku hartze lerroaren inguruan lortu nahi diren lorpenak jasotzen dira.

esparrua

*4/2005 legean, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VI Planean agertzen diren mandatu juridikoak jasotzen dira.*

| helburu espezifikoak | neurriak |
| --- | --- |
| | |

Esku hartze lerro honetarako, helburu espezifiko eta neurri guztiak jasotzen dituen laburpen taula.

Helburu espezifiko bakoitza fitxa batean garatzen da, non neurriak, ekintzak, eragileak, adierazleak, kronograma eta baliabideak zehazten diren.

HELBURU ESPEZIFIKOA

neurriak

ekintzak





Zer egingo dugu helburua lortzeko?

Nola egingo dugu?

Neurrien garapenean parte hartu behar duten udalaren arlo, egitura eta erakundeak

Neurri bakoitzarako, betetze mailaren eta emaitzen adierazleak.

Kronograma



AURREKONTUA

Ekintzak egoki garatzeko behar diren baliabide ekonomikoak eta lan orduak

Helburu espezifiko bakoitzarako, emaitzen eta eraginaren adierazleak

# 7. ESKU HARTZE LERROAK



## 1. Lerroa:

## GOBERNANTZA

Genero ikuspegia administrazio jardueran txertatzen baldin bada, hobeagoa da Gobernantza, Donostiako Udalak Berdintasunaren alde hartutako konpromisoa indartzeaz gainera, haren esku hartze publikoa eraginkorragoa, sinesgarriagoa, eta bidezkoagoa delako.

3.4. Artikulua. Genero ikuspegiaren integrazioa.

*Euskal herri-aginteek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.*

Europako eta, oro har, nazioarteko mailan gomendaturiko lan estrategietako bat izateaz gainera, genero ikuspegiaren edo genero mainstreaming-aren integrazioa dugu, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, euskal herri aginteen jarduna arautu eta orientatu behar duten oinarri nagusietako bat, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.4 artikuluak xedatzen duen bezala.

### helburuak

- Genero ikuspegia Donostiako Udalaren jardueran txertatzea.
- Berdintasunerako politiken garapen egokia ziurtatuko duten egiturak eta baliabideak bermatzea.
- Eragile sozioekonomikoek emakumeen eta gizonen berdintasunerako lan egin dezaten bultzatzea.

### esparrua

- ☐ *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen* 3.4 artikulua, eta II. Titulua: Euskal herri administrazioen eta aginteen jarduketan genero ikuspegia integratzeko neurriak.
- ☐ *EAEko emakumeen eta gizonen Berdintasunerako VI. Plana.* Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Gobernantza.

| helburuak | neurriak |
|---|---|
| **1. Genero ikuspegia udal aurrekontuetan txertatzea.** | 1.1. Donostiako Udalaren Aurrekontuetan Berdintasunerako diru-sail berezi baten aldeko konpromisoa gauzatzea. |
| | 1.2. Donostiako Udalaren Aurrekontu Orokorrak genero ikuspegitik lantzea eta gauzatzea. |
| **2. Kontratazioetan, diru laguntzetan eta hitzarmenetan Berdintasunerako Klausulak zehaztea.** | 2.1. Kontratazioan Gizarte Klausulen jarraibidearen aplikazioa bermatzea. |
| | 2.2. Donostiako Udalaren kontratazioen diagnostikoa egitea, genero ikuspegitik. |
| **3. Komunikazio elementu guztietako hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bideratzea.** | 3.1. Hizkuntzaren erabilera ez sexistaren gaineko prestakuntza eskaintzea. |
| | 3.2. Egungo tresnak ezagutaraztea (gidak, aplikazio informatikoak…). |
| | 3.3. Aholkularitza zerbitzua eskaintzea. |
| **4. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.** | 4.1. Aplikazio informatiko egokiak garatzea. |
| | 4.2. Arloetako diru laguntzen fitxetako datuak baliatzea. |
| | 4.3. Iraunkortasunerako Memorian Berdintasunaren Adierazleak txertatzea. |
| | 4.4. Hiri Behatokian Berdintasunaren Adierazleak txertatzea. |
| | 4.5. Berdintasunaren egoeraren gaineko azterlan bereziak egitea. |
| **5. Epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatzea.** | 5.1. Sarien banaketarako eta kultura ondasunak eskuratzeko epaimahaietan klausula bat bideratzea, emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatzeko. |
| **6. Sarien banaketan eta kultura ondasunen eskuratzean genero ikuspegia txertatzea.** | 6.1. Hiriko Jaialdietan Berdintasunerako Sarien sorrera sustatzea. |
| | 6.2. Urrezko Danborrerako eta Hiritar Merezimenduaren Dominetarako hautagai zerrendetan, emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatzea. |
| | 6.3. Aholkularitza eskaintzea, epaimahaietan genero ikuspegia aintzat har dadin. |
| **7. Berdintasunaren aldeko gaietan gaitasuna eta prestakuntza sustatzea.** | 7.1. Berdintasunerako arloko Prestakuntza Plana lantzea, Donostiako Udaleko langile teknikari eta politikariei begira. |
| | 7.2. Berdintasunaren arloan formazioa duten pertsonei buruzko informazio eguneratua eskura edukitzea. |
| **8. Berdintasunaren aldeko oinarriak administrazio jardunean eta jarduera arau-emailean txertatzea.** | 8.1. Generoaren araberako eraginaren ebaluazioak aurrez egitea. |

| | |
|---|---|
| 9. Donostiako Udalaren Berdintasun Bulegoa indartzea. | 9.1. Berdintasun Bulegoaren antolamendua eta jarduera hobetzea. |
| | 9.2. Egungo lanpostu teknikoen egonkortasuna hobetzea. |
| | 9.3. Berdintasun Bulegoko langileen premien diagnostikoa bideratzea. |
| 10. Udal enpresa eta erakundeetan Berdintasunerako plangintza sustatzea. | 10.1. Berdintasunerako Planen arteko koordinazioa sustatzea, Donostiako Udalaren zuzeneko eta mendeko erakundeetan. |
| | 10.2. Zuzeneko eta mendeko erakundeei Berdintasunaren arloan bete beharreko aginduei buruzko informazioa ematea. |
| 11. Berdintasunerako Politiken arloan, instituzioen arteko harremanak sustatzea. | 11.1. Instituzioen arteko Berdintasun Sareetan parte hartzea. |
| 12. Donostiako Udalaren Plan guztietan genero ikuspegia txertatzea. | 12.1. Donostiako Udalaren plangintzaren koordinaziorako gune guztietan esku hartzea. |
| 13. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak genero ikuspegiaren txertatzeari begira jasotzen dituen neurrien aplikazioa bermatzea. | 13.1. Langile guztiek Zeharkako Neurrien Jarraibidearen ezagutza bermatzea. |
| | 13.2. Donostiako Udalaren Zeharkako Neurrien Jarraibidea 4/2005 Legeak jasoriko neurriak arian-arian aintzat harturik zabaltzea, genero ikuspegia egunoroko jardunean txertatzeko. |
| | 13.3. Berdintasunerako Udal Ordenantza lantzeko aukera aintzat hartzea. |
| 14. Donostiako Udalaren barne jarduna arautuko duen Berdintasunerako Plana bultzatzea. | 14.1. Barne jardunari begira Berdintasunerako Plan bat lantzea, honako arlo hauek lantzeko: langileen kontratazioak, mailaketa profesionala, promozioa eta formazioa, lansariak eta lan orduen antolaketa. Helburua da bizitza pertsonala, familia eta lana bideratzea berdintasunaren ikuspegitik, eta sexu-jazarpena eta jazarpen sexista prebenitzea. |
| | 14.2. Berdintasunerako Barne Planaren neurrien txertatze prozesua jarraitzea. |
| 15. Donostiako Udalaren Berdintasunerako III. Planaren Kudeaketa Eredua garatzea. | 15.1. Berdintasunerako III. Planaren Komunikazio Plana zehaztea. |
| | 15.2. Berdintasunerako Arloen arteko Batzorde Politikoa eta Teknikoa indartzea. |
| | 15.3. Berdintasunerako Planaren Eredu, Koordinazio eta Jarraipenerako Batzorde Teknikoa indartzea. |
| | 15.4. Arloen barneko koordinazio egiturak arlo bakoitzaren errealitatera egokiturik diseinatzea. |
| | 15.5. Arloen arteko koordinaziorako egiturak indartzea. |
| | 15.6. Administrazioaren eta mugimendu asoziatiboaren arteko kogestioari begira, bitariko ereduak garatzea, batez ere desberdintasun maila handiagoa den kolektiboetan. |
| | 15.7. Planaren ezarpen mailaren jarraipen etengabea eta urtekoa bideratzea. |

# 1. HELBURU ZEHATZA

Genero ikuspegia udal aurrekontuetan txertatzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 1.1. | Donostiako Udalaren Aurrekontuetan Berdintasunerako diru-sail berezi baten aldeko konpromisoa gauzatzea. | ➲ Aurrekontu izendapena egitea, programa eta arlo bakoitzeko.<br>➲ Tokiko Gobernu Batzarrak onartzea. | ■ Finantzak<br>■ Idazkaritza<br>■ Kontuhartzailetza eta Kontabilitatea<br>■ Tokiko Gobernu Batzarra<br>■ Berdintasuna<br>■ Udal arlo, enpresa eta erakunde guztiak | • Urtean Berdintasunerako aurrekontu izendapenaz bideratu diren programak guztira. |
| 1.2. | Donostiako Udalaren Aurrekontu Orokorrak genero ikuspegitik lantzea eta gauzatzea. | ➲ Metodologia aproposa diseinatzea.<br>➲ Metodologia onartzea.<br>➲ Metodologia frogatzea. Esperientzia pilotua.<br>➲ Aldaketa/hobekuntzetarako proposamenak.<br>➲ Jarraibide baten onarpena. | ■ Berdintasuna<br>■ Finantzak<br>■ Idazkaritza<br>■ Udal arlo, enpresa eta erakunde guztiak | • Metodologia onartua.<br>• Agindu onartua.<br>• Urtean aurrekontuetan eginiko hobekuntzak guztira. |




AURREKONTUA
26.000 €
1.500 ordu

• Genero ikuspegiari sarrera egin dioten arloen aurrekontuen portzentajea.

## 2. HELBURU ZEHATZA

**Kontratazioetan, diru laguntzetan eta hitzarmenetan Berdintasunerako Klausulak zehaztea.**

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 2.1. | Kontratazioan Gizarte Klausulen jarraibidearen aplikazioa bermatzea. | ➲ Kontratazioan Gizarte Klausulen aplikazioaren Jarraipen eta Ebaluaziorako Batzorde Teknikoa lanean abiaraztea. | ■ Idazkaritza<br>■ Kontratazioa eta Erosketak<br>■ Berdintasunerako Batzordea<br>■ Udal arlo, enpresa eta erakunde kontratatzaile guztiak | • Eginiko kontsultak guztira. |
| 2.2. | Donostiako Udalaren kontratazioen diagnostikoa egitea, genero ikuspegitik. | ➲ Kontratazio esanguratsuak identifikatzea.<br>➲ Erakunde kontratatu nagusiak hautematea.<br>➲ Adierazleen diseinua.<br>➲ Konklusioen prestaera eta hobekuntzen proposamena. | ■ Kontratazioa eta Erosketak<br>■ Idazkaritza<br>■ Berdintasuna | • Donostiako Udalean aztertu diren kontratazioen portzentajea.<br>• Eginiko diagnostikoa. |

2014 2015 2016 2017 2018

AURREKONTUA
16.000 €
900 ordu

- Berdintasunerako Klausulak aintzat hartuak izan diren kontratuak guztira.
- Berdintasunerako Klausulak aintzat hartuak izan diren kontratuen portzentajea.
- Berdintasunerako Klausulak aintzat hartuak izan diren dirulaguntzen portzentajea.

# 3. HELBURU ZEHATZA

**Komunikazio elementu guztietako hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bideratzea.**





| | neurriak | ekintzak | | |
|---|---|---|---|---|
| 3.1. | Hizkuntzaren erabilera ez sexistaren gaineko prestakuntza eskaintzea. | ➲ Prestakuntzarako modulu zehatz bat edo berdintasunerako oinarrizko prestakuntzari begira aintzat harturiko modulu bat diseinatzea.<br>➲ Prestakuntza ekintza aurreratu bat diseinatzea, komunikatzaile eta itzultzaileei begira.<br>➲ *Berdintasun Ataria* egokitzea. | ■ Giza Baliabideak<br>■ Berdintasuna<br>■ Argitalpen Kabineteak<br>■ Itzulpen Bulegoa | • Prestakuntza Ekintzak urtean guztira.<br>• Hizkuntzaren erabilera ez sexistaren gaineko prestakuntza jaso duten langileen portzentajea, sexuaren arabera banatua. |
| 3.2. | Egungo tresnak ezagutaraztea (gidak, aplikazio informatikoak...) | ➲ Tresna interesgarriak identifikatzea.<br>➲ Tresna horien erabilera intraneten bideratzea. | ■ Udal Informatika Zentroa<br>■ Berdintasuna | • Ezagutarazitako tresnak guztira.<br>• Zabalkunde ekintzak guztira. |
| 3.3. | Aholkularitza zerbitzua eskaintzea. | ➲ Emakumeak eta gizonak ikusarazteko bideraturiko erabileren gaineko zalantzak argitzea. | ■ Berdintasuna | • Eginiko kontsultak guztira, arloz arlo. |

2014 2015 2016 2017 2018

AURREKONTUA
5.000 €
700 ordu

• Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista bideratzen diren dokumentuen portzentajea, ausazko aukeraketa batean.

# 4. HELBURU ZEHATZA

Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 4.1. | Aplikazio informatiko egokiak garatzea. | ➲ Datu base baten diseinua Emakumeen Etxerako.<br>➲ Aplikazio baten diseinua, kontratazioan Gizarte eta Berdintasunerako Klausulak aintzat hartuak izan daitezen.<br>➲ Aurrekontuak eta Generoa proiekturako datu basea diseinatzea.<br>➲ Aplikazio baten diseinua Planaren jarraipenerako. | Udal Informatika Zentroa<br>Gizarte Ongizatea<br>Euskara<br>Finantzak<br>Ingurumena<br>Lankidetza<br>Berdintasuna<br>Emakumeen Etxea Elkartea | • Garaturiko aplikazio informatikoak guztira. |
| 4.2. | Arloetako diru laguntzen fitxetako datuak baliatzea. | ➲ Adierazle interesgarriak zehaztea.<br>➲ Konklusioak eta hobekuntzarako proposamenak lantzea. | Dirulaguntza lerroak dituzten arloak<br>Auzoak eta Parte hartzea | • Azterturiko dirulaguntza fitxen portzentajea.<br>• Urteko konklusio eta hobekuntzarako lerroei buruzko txostena. |
| 4.3. | Iraunkortasunerako Memorian Berdintasunaren Adierazleak txertatzea. | ➲ Adierazle berriak zehaztea.<br>➲ Galdeketa eta azterketa autonomikoetako datuen udal mailako ustiaketa kontratatzeko aukera aztertzea.<br>➲ Urteko jarraipena.<br>➲ Iraunkortasun Memorian txertatzea. | Cristina Enea Fundazioa<br>Berdintasuna | • Berdintasunerako definituriko adierazleak guztira.<br>• Adierazleak guztira, sexuaren arabera banatuak. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 4.4. Hiri Behatokian Berdintasunaren Adierazleak txertatzea. | ➲ Adierazleak zehaztea.<br>➲ Galdeketa eta azterketa autonomikoetako datuen udal mailako ustiaketa kontratatzeko aukera aztertzea.<br>➲ Urteko jarraipena.<br>➲ Hiri Behatokian aintzat hartzea. | Sustapena<br>Berdintasuna | • Berdintasunerako definituriko adierazleak guztira.<br>• Adierazleak guztira, sexuaren arabera banatuak. |
| 4.5. Berdintasunaren egoeraren gaineko azterlan bereziak egitea. | ➲ Esparru interesgarriak lehenestea.<br>➲ Azterlanak egiteko finantzabideak lortzea.<br>➲ Azterlanak argitaratzea. | Berdintasuna<br>Udal arlo, enpresa eta erakunde guztiak | • Bideraturiko azterlan zehatzak guztira. |
| 2014 2015 2016 2017 2018 | AURREKONTUA<br>53.000 €<br>1.500 ordu | | • Sexuaren aldagaia aintzat harturiko estatistika eta azterlanen portzentajea, ausazko aukeraketa batean.<br>• Sexuaren aldagaia landu eta azterturiko estatistika eta azterlanen portzentajea, ausazko aukeraketa batean. |

# 5. HELBURU ZEHATZA

Epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatzea.

## neurriak

5.1. Sarien banaketarako eta kultura ondasunak eskuratzeko epaimahaietan klausula bat bideratzea, emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatzeko.

## ekintzak

- Epaimahaiak identifikatzea.
- Klausularik gabeko Epaimahaiak identifikatzea.
- Klausula baten erredakzioa, halakorik aintzat hartu ez duten Epaimahaiei begira.



- Donostia Kultura
- Donostia Turismoa
- Giza Eskubideak
- Sustapena
- Berdintasuna
- Donostia 2016
- Donostiako Zinemaldia



- Emakumeen eta gizonen presentzia bultzatzeko klausula duten Epaimahaien portzentajea.
- Emakumeen eta gizonen presentzia parekidearen aldeko agindua betetzen duten Epaimahaien portzentajea.
- Emakumeen batez besteko portzentajea Epaimahaietan.

2014 2015 2016 2017 2018

AURREKONTUA
1.000 €
70 ordu

# 6. HELBURU ZEHATZA

## Sarien banaketan eta kultura ondasunen eskuratzean genero ikuspegia txertatzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 6.1. | Hiriko Jaialdietan Berdintasunerako Sarien sorrera sustatzea. | ➲ Sariak emateko irizpideak berrikustea.<br>➲ Ekintza positiboak sarrarazteko aukera aztertzea.<br>➲ Azken aldietako emakume portzentajeen gaineko datuak lortzea. | ■ Berdintasuna<br>■ Zuzenean loturiko arloak | • Sorturiko sariak guztira. |
| 6.2. | Urrezko Danborrerako eta Hiritar Merezimenduaren Dominetarako hautagai zerrendetan, emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatzea. | ➲ Azkenaldi honetako emakume saritu portzentajeen gaineko datuak lortzea.<br>➲ Talde politikoak lorturiko datuen gainean sentsibilizatzea.<br>➲ Ekintza positiboak sarrarazteko aukera aztertzea. | ■ Alkatetza<br>■ Donostia Turismo<br>■ Auzoak eta Parte hartzea | • Hautagai zerrendetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan den urteen portzentaia.<br>• Emakumeen batez besteko portzentaia, hautagai zerrenda guztiak batera harturik. |
| 6.3. | Aholkularitza eskaintzea, epaimahaietan genero ikuspegia aintzat har dadin. | ➲ Generoaren ikuspegitik aintzat hartu beharreko jarraibideak ageriko dituen dokumentua prestatzea.<br>➲ Epaimahaiei helaraztea. | ■ Batzorde Teknikoa<br>■ Berdintasuna | • Harturiko kontsultak guztira. |

2014 2015 2016 2017 2018

AURREKONTUA
26.000 €
700 ordu

- Eskuraturiko kultura ondasunen artetik,  emakumeek egin edo landurikoen portzentajea.
- Urrezko Danborra eta Hiritar Merezimenduaren Dominak jaso duten emakumeen portzentajea.

# 7. HELBURU ZEHATZA

Berdintasunaren aldeko gaietan gaitasuna eta prestakuntza sustatzea.

| neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|
| 7.1. Berdintasunerako arloko Prestakuntza Plana lantzea, Donostiako Udaleko langile teknikari eta politikariei begira. | ➲ Arlo eta lanpostu bakoitzeko berdintasunaren arloan behar diren prestakuntza mailak zehaztea.<br>➲ Oinarrizko prestakuntza ekintzak diseinatzea.<br>➲ Prestakuntza ekintza aurreratuak eta/edo zehatzak diseinatzea.<br>➲ Berdintasun Bulegorako prestakuntza zehatza antolatzea. | ■ Giza Baliabideak<br>■ Berdintasuna | • Berdintasunerako oinarrizko prestakuntza behar duten lanpostuen portzentajea.<br>• Berdintasunerako prestakuntza aurreratua eta/edo zehatza behar duten/dituzten lanpostuen portzentajea.<br>• Berdintasunaren aldeko prestakuntzarako urtean eskaini diren ekintzak batez beste.<br>• Berdintasun Bulegoko langileek batez beste jasotzen dituzten prestakuntza orduak. |
| 7.2. Berdintasunaren arloan formazioa duten pertsonei buruzko informazio eguneratua eskura edukitzea. | ➲ Pertsona bakoitzak berdintasunerako prestakuntzan egin dituen ekintzen erregistroa.<br>➲ Lorturiko datuen tratamendua bideratzea. | ■ Giza Baliabideak | • Langile bakoitzak berdintasunerako landu dituen orduak batez beste.<br>• Arloak prestaturiko langileen portzentajea. |




AURREKONTUA
39.000 €
2.900 ordu

- Berdintasunean prestaturiko teknikarien portzentajea, sexuaren arabera banatua.
- Berdintasunean prestaturiko politikarien portzentajea, sexuaren arabera banatua.

# 8. HELBURU ZEHATZA

## Berdintasunaren aldeko oinarriak administrazio jardunean eta jarduera arau-emailean txertatzea.

| neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|
| 8.1. Generoaren araberako eraginaren ebaluazioak aurrez egitea. | ➲ Batzorde Teknikoan, bere administrazio jardueran eta bere egiteko arauemailean, generoaren araberako eragina aldez aurretik ebaluatzeko aukera aztertzea.<br>➲ Arlo bat eta jarduera pilotu bat aukeratzea.<br>➲ Generoaren eraginaren aldez aurreko ebaluazioen gaineko prestakuntza antolatzea.<br>➲ Proiektaturiko ekintza eta ekintza horrek emakumeen eta gizonen desberdintasunen hazkundean edo murriztean izango duen eragina aztertzea.<br>➲ Neurri zuzentzaileak bideratzea, berdintasunaren gaineko eragina negatiboa dela sumatzen bada.<br>➲ Esperientzia pilotua ebaluatzea.<br>➲ Beste arlo batzuetara zabaltzea. | Idazkaritza<br>Berdintasuna<br>Batzorde Teknikoa<br>Arlo ez pilotua | • Ebaluaturiko jarduerak eta araudiak guztira |




AURREKONTUA
5.000 €
700 ordu

• Generoaren eragina aldez aurretik ebaluaturiko administrazio jardueren eta egiteko arauemaileen portzentajea.

# 9. HELBURU ZEHATZA

## Donostiako Udalaren Berdintasun Bulegoa indartzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 9.1. | Berdintasun Bulegoaren antolamendua eta jarduera hobetzea. | ➲ Berdintasun Bulegoak udal organigraman betetzen duen lekua ebaluatzea.<br>➲ Arazoak eta premiak identifikatzea, egunoroko lanean eta maila estrategikoan.<br>➲ Barne mailari begira behar diren antolamendu tresnak identifikatzea.<br>➲ Lan eta proiektuen banaketa berrantolatzea. | ■ Giza Baliabideak<br>■ Berdintasuna | • Saioak guztira.<br>• Identifikaturiko hobekuntza lerroak guztira. |
| 9.2. | Egungo lanpostu teknikoen egonkortasuna hobetzea. | ➲ Egungo lanpostuetako lan baldintzak berraztertzea.<br>➲ Postu horiek betetzen dituzten pertsonen berdintasunaren aldeko gaitasuna bermatzea.<br>➲ Teknikarien postuak Lanpostuen Zerrendan sendotzea. | ■ Giza Baliabideak<br>■ Enpresa Batzordea | • Sekzioko langile kopurua handiagotzea, kontratazio egonkorrerako formulen bitartez.<br>• Berdintasunaren arloan gutxienez 150 orduko prestakuntza duten teknikarien portzentajea. |
| 9.3. | Berdintasun Bulegoko langileen premien diagnostikoa egitea. | ➲ Egun langile bakoitzak duen lan karga ebaluatzea.<br>➲ Hala behar badu, premiak asetzeko behar diren lanpostuetarako deialdia egitea. | ■ Giza Baliabideak | • Teknikarien gehikuntza. |




AURREKONTUA
13.000 €
700 ordu

• Berdintasun Bulegoa osatzen duten Berdintasun Eragileak guztira.

# 10. HELBURU ZEHATZA

Udal enpresa eta erakundeetan Berdintasunerako plangintza sustatzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 10.1. | Berdintasunerako Planen arteko koordinazioa sustatzea, Donostiako Udalaren zuzeneko eta mendeko erakundeetan. | ➲ Berdintasunerako plana onartua duten erakundeak identifikatzea.<br>➲ Urteko lan saioa zehaztea, haren jarraipenari eta esperientzien trukeari begira.. | ■ Berdintasuna<br>■ Dbus<br>■ Donostia Kultura<br>■ Planak bideratzen dituzten udal erakunde eta enpresa guztiak. | • Eginiko lan saioak guztira.<br>• Lan saioetan esku hartzen duten mendeko erakundeen portzentajea |
| 10.2. | Zuzeneko eta mendeko erakundeei Berdintasunaren arloan bete beharreko aginduei buruzko informazioa ematea. | ➲ Donostiako Udalaren zuzeneko eta mendeko erakundeak identifikatzea.<br>➲ Haien egoera aztertzea, berdintasunerako politikei dagokien aldetik.<br>➲ Berdintasunaren arloan legez bete beharrekoen berri jakinaraztea | ■ Berdintasuna | • Informaturiko erakundeak guztira. |




AURREKONTUA
26.000 €
1.500 ordu

- Berdintasunerako Plana duten mendeko erakundeen portzentajea.
- Kapitala gehien bat publikoa dutenen artean, Berdintasunerako Plana duten enpresen portzentajea.

# 11. HELBURU ZEHATZA

Berdintasunerako Politiken arloan, instituzioen arteko harremanak sustatzea.

## neurriak

11.1. Instituzioen arteko Berdintasun Sareetan parte hartzea.

- *Berdinsarea.*
- *Gipuzkoako Berdintasun Teknikarien Sarea.*
- *Indarkeriaren aurreko Arretarako Protokoloa.*
- *Funts Europarrak.*
- *Eta Planaren indarraldian sor litezkeen beste batzuk.*

## ekintzak

- Beharreko baliabide ekonomikoak eta teknikoak bermatzea.



- Berdintasuna
- Gizarte Ongizatea.



- Partaidetza bideraturiko Sareak guztira.
- Urteko lan saioak batez beste, sare bakoitzeko.
- Berdintasunerako Politiken arloan, elkarlana bideraturiko Instituzioak.

2014 2015 2016 2017 2018

AURREKONTUA
1.000 €
600 ordu

# 12. HELBURU ZEHATZA

Donostiako Udalaren Plan guztietan genero ikuspegia txertatzea.





| | neurriak | ekintzak | | |
|---|---|---|---|---|
| 12.1. | Donostiako Udalaren plangintzaren koordinaziorako gune guztietan esku hartzea. | ➲ Ordezkari bat izendatzea, Donostiako Udalaren plangintzaren koordinaziorako mahaian esku har dezan.<br>➲ Lan saioetan parte hartzea.<br>➲ Genero ikuspegitik, aurkeztuko diren udal planen aurrean ekarpenak egitea. | ■ Alkatetza<br>■ Sustapena. Plangintza Estrategikoa.<br>■ Zuzenean loturiko arlo guztiak. | • Parte hartutako lan saioak batez beste.<br>• Aurkeztuko diren udal planen aurrean generoaren ikuspegitik egin diren ekarpenak guztira. |

2014 2015 2016 2017 2018

AURREKONTUA
5.000 €
300 ordu

• Donostiako Udalean, diseinuan, ebaluazioan eta kudeaketan genero ikuspegia sarrarazi duten Planen portzentajea.

# 13. HELBURU ZEHATZA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak genero ikuspegiaren txertatzeari begira jasotzen dituen neurrien aplikazioa bermatzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 13.1. | Langile guztiek Zeharkako Neurrien Jarraibidearen ezagutza bermatzea. | ➲ Agiri batean Berdintasunaren alorreko aginduak eta erreferentziazko dokumentazioa jasotzea. | ■ Berdintasuna<br>■ Batzorde Teknikoa<br>■ Giza Baliabideak | • 4/2005 Legearen betebeharrak, Zeharkako Neurrien Jarraibidean jasoak, ezagutzen dituzten langileen portzentajea. |
| 13.2. | Donostiako Udalaren Zeharkako Neurrien Jarraibidea 4/2005 Legeak jasoriko neurriak arian-arian aintzat harturik zabaltzea, genero ikuspegia egunoroko jardunean txertatzeko. | ➲ Aintzat hartu beharreko neurri garrantzitsuak identifikatzea.<br>➲ Jarraibidea zabaltzeko proposamena lantzea.<br>➲ Zeharkako Neurrietarako Jarraibidearen zabalpena onartzea. | ■ Berdintasuna<br>■ Idazkaritza | • Jaso diren neurri berriak guztira. |
| 13.3. | Berdintasunerako Udal Ordenantza lantzeko aukera aintzat hartzea. | ➲ Ordenantzak ekar ditzakeen onurak aztertzea.<br>➲ Tolosako Udalarekin hitz egitea, haien esperientzia ezagutzeko | ■ Berdintasuna<br>■ Batzorde Politikoa | • Lorturiko erabakia. |




AURREKONTUA
5.000 €
700 ordu

• Legearen araberako neurriek Jarraibideak arautzen dituenen artean duten portzentajea.

# 14. HELBURU ZEHATZA

Donostiako Udalaren barne jarduna arautuko duen Berdintasunerako Plana bultzatzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 14.1. | Barne jardunari begira Berdintasunerako Plan bat lantzea, honako arlo hauek lantzeko: langileen kontratazioa, mailaketa profesionala, promozioa eta formazioa, lansariak eta lan orduen antolaketa. Helburua da bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea berdintasunaren ikuspegitik, eta sexu-jazarpena eta jazarpen sexista prebenitzea.<br><br> | ➲ Berdintasun Batzordearen osaera, edukiak eta eginkizunak berrikustea<br>➲ Donostiako Udaleko emakumeen eta gizonen egoeraren gaineko diagnostikoa egitea.<br>➲ Diagnostikoan hobekuntzari begira identifikatu diren esparruak lehenestea.<br>➲ Hobetu beharreko esparru horietarako helburuak eta neurriak zehaztea.<br>➲ Neurrietarako ekintzak, arduradunak, kronograma, aurrekontua eta adierazleak zehaztea.<br>➲ Berdintasunerako Plana dagokion hitzarmenari eranstea.<br>➲ Berdintasunerako Plana langile guztiei jakinaraztea. | ■ Berdintasun Batzordea<br>■ Giza Baliabideak<br>■ Sindikatuak.<br>■ Berdintasuna | • Aintzat harturiko arloak guztira.<br>• Harturiko neurriak guztira.<br>• Berdintasunerako Planaren onarpen data. |
| 14.2. | Berdintasunerako Barne Planaren neurrien txertatze prozesua jarraitzea.<br><br> | ➲ Planaren betetze mailaren jarraipena urtero.<br>➲ Premia eta zailtasun berriak identifikatzea.<br>➲ Beharreko aldaketak egitea. | ■ Giza Baliabideak<br>■ Sindikatuak.<br>■ Berdintasuna | • Jarraipen Txostena bururaturiko urteen portzentajea.<br>• Eginiko aldaketak guztira. |

AURREKONTUA
13.000 €
300 ordu

• Berdintasunerako Barne Planean aintzat harturiko neurrien betetze maila, ehunekotan.

# 15. HELBURU ZEHATZA

## Donostiako Udalaren Berdintasunerako III. Planaren Kudeaketa Eredua garatzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 15.1. | Berdintasunerako III. Planaren Komunikazio Plana zehaztea. | ➲ Komunikazioaren helburuak barne eta kanpo mailan zehaztea.<br>➲ Barne eta kanpo mailan erabiliko diren komunikabideak zehaztea.<br>➲ Baliabide ekonomikoak zehaztea. | ■ Berdintasuna<br>■ Argitalpen Kabinetea<br>■ Batzorde Politikoa<br>■ Batzorde Teknikoa | • Zehazturiko helburuak guztira.<br>• Harturiko neurriak guztira. |
| 15.2. | Berdintasunerako Arloen arteko Batzorde Politikoa eta Teknikoa indartzea. | ➲ Barne hausnarketarako prozesua zabaltzea, Berdintasunerako Arloen arteko Batzorde Politikoa eta Teknikoak beteko dituen egitekoen gainean.<br>➲ Alkatetzaren 2010eko Ebazpena eguneratzea, hartan zehaztu baitziren Berdintasunerako Arloen arteko Batzorde Politikoa eta Teknikoaren egitekoak. | ■ Politikariak eta zuzendaritzak<br>■ Berdintasuna | • Urteko lan saioak batez beste.<br>• Lan saioen %80an baino gehiagoan parte hartzen duten zinegotzi eta zuzendaritzen portzentajea. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 15.3. | Berdintasunerako Planaren Eredu, Koordinazio eta Jarraipenerako Batzorde Teknikoa indartzea. | ➲ Ordezkarien perfila zehaztea, Arloek Batzordean edukiko dituztenak izendatu ahal izateko.<br>➲ Alkatetzaren 2010eko Ebazpena eguneratzea, hartan zehaztu baitziren II. Planaren Eredu, Koordinazio eta Jarraipenerako Batzorde Teknikoaren egitekoak.<br>➲ Pertsona ordezkarien postuaren perfilean Berdintasunaren aldeko ardurak ere aintzat hartzea.<br>➲ Parte hartzeko behar duten baliabideak bermatzea.<br>➲ Orain arte parte hartu ez duten arloei parte hartzera gonbidatzea. | ■ Batzorde Politikoa<br>■ Berdintasuna<br>■ Udal arlo, enpresa eta erakunde guztiak | • Urteko lan saioak batez beste.<br>• Lan saioen %80an baino gehiagoan parte hartzen duten arloen portzentajea. |
| 15.4. | Arloen barneko koordinazio egiturak arlo bakoitzaren errealitatera egokiturik diseinatzea. | ➲ Berdintasunerako lana arlo mailan bultzatzeko egitura egokiena –egungoa nahiz berria– zehaztea.<br>➲ Parte hartu behar duten arloak edo pertsonak zehaztea, departamentu osora zabalduko dela ziurtatzeko.<br>➲ Haren jarduera sistematizatzea: kideak, lan saioen kopurua... | ■ Udal arlo, enpresa eta erakunde guztiak | • Berdintasunerako arloen arteko koordinaziorako egitura eraginkorraz hornituriko arloen portzentajea. |
| 15.5. | Arloen arteko koordinaziorako egiturak indartzea.<br>▪ *Puntu Kritikoetarako Taldea*<br>▪ *Kontratazioan gizarte klausulen aplikazioaren Jarraipen eta Ebaluaziorako Batzorde Teknikoa.*<br>▪ *Dirulaguntzetarako Taldea*<br>▪ *Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko udal protokoloaren koordinaziorako mahai teknikoa* | ➲ Beharreko baliabide ekonomikoak eta teknikoak bermatzea. | ■ Batzorde Politikoa<br>■ Egitura hauetan esku hartzen duten arloak | • Lan saioak batez beste, egitura bakoitzeko. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 15.6. | Administrazioaren eta mugimendu asoziatiboaren arteko kogestioari begira, bitariko ereduak garatzea, batez ere desberdintasun maila handiagoa den kolektiboetan. | ➲ Kogestioa bidezkoa den proiektuak identifikatzea.<br>➲ Kogestioaren araberako bitariko eredua zehaztea.<br>➲ Baliabide ekonomiko eta teknikoz hornitzea.<br>➲ Kogestiorako eredua onartzea. | ■ Batzorde Politikoa<br>■ Berdintasuna<br>■ Gizarte Ongizatea<br>■ Kultura Aniztasuna<br>■ Auzoak eta Parte hartzea<br>■ Elkarteak | • Kogestiorako garaturiko bitariko ereduak guztira. |
| 15.7. | Planaren ezarpen mailaren jarraipen etengabea eta urtekoa bideratzea. | ➲ Jarraipenerako tresna bat diseinatzea.<br>➲ Jarraipenerako adierazleen arabera jokatzea.<br>➲ Jarraipen Txostenak urtero prestatzea. | ■ Berdintasuna<br>■ Zuzenean loturiko udal arlo, enpresa eta erakunde guztiak | • Jarraipen Txostena bururaturiko urteen portzentajea.<br>• Planaren jarraipenean hobetu eta egokitu beharrekotzat hartu diren lerroak guztira. |
| 2014 2015 2016 2017 2018 | | AURREKONTUA<br>26.000 €<br>1.500 ordu | | • Planaren arabera hartutako neurrien portzentajea. |

## 2. Lerroa:

# ZAINTZA ERANTZUKIDEAK



Egungo gizarte antolakuntzak sexuaren araberako banaketari eusten dio betiere lanean eta, horrela, emakumeei eta gizonei ekoizpen eta erreprodukzio rolak ez zaizkie berdin egokitzen. Funtsezkoa da administrazioek, enpresek eta gizarte eragileek eta herritarrek ardurak beren gain hartu eta zaintza lanak soil-soilik emakumeen egitekotzat hartzen dituzten estereotipoak ezerezean uzten laguntzea.

*Alde handiak daude emakumeek eta gizonek eguneroko zereginetan erabiltzen dituzten denboren artean: etxeko lanetan, ordu bete eta 34 minutu gehiago egunean emakumeek; zaintzan, 32 minutu gehiago egunean emakumeek; lanean, ordu bete eta 10 minutu gehiago egunean gizonek; eta aisian, 37 minutu gehiago egunean gizonek. Horrek agerian uzten du indarrean dirautela sexuaren araberako banaketak lanean eta banaketa horretatik eratortzen diren gizarte estereotipoek: emakumeak "ama ona" izan behar du; gizonak, "langile ona".*

.

Bizitzaren iraunkortasunaren funtsezko alderdia dira zaintzak. Funtsezkoa da zaintza eredu berri unibertsal eta duinen eraikuntzaren alde lan egitea, joan-etorriak, segurtasuna eta espazioen gozamena herritar guztien eskumenean jarriko dituen hiriaren esparruan.

### helburuak

- Paradigma aldaraztea, zaintza lanak aintzat hartzeko modua bestelakoa izan dadin.
- Zaintzek gizarte egiturei eusterakoan eta haietaz arduratzen direnen baldintzak duintzerakoan duten garrantzia agerian uztea.
- Sareak eta laguntzarako zerbitzuak sustatzea.

### esparrua

- ☐ *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.* VI. KAPITULUA BIZITZA PERTSONALA, FAMILIA ETA LANA UZTARTZEA. *47. artikulua.– Xedapen orokorra.*
- ☐ *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana.* II. Ardatza Gizarte antolakuntza erantzukidean aurreratzea

| helburuak | neurriak |
|---|---|
| **1. Donostiako pertsona zaintzaileen egoera hobetzea.** | 1.1. *Pertsona zaintzaileen aldeko Planaren* ezarpena. |
| **2. Zaintzaren erantzukidetasuna eta etika bultzatzea.** | 2.1. Zinegotziek zaintzari emaniko dedikazio denborak ikusaraztea. |
| | 2.2. Etxeko eta zaintza lanetan haur eta gazteen parte hartzea bultzatzea, mutilen jardunak bereziki aintzat harturik. |
| | 2.3. Gizonei etxeko eta zaintza lanen aurrean ardurak hartzera bultzatzea. |
| | 2.4. Enpresen kontziliazio erantzukidea bultzatzea. |
| | 2.5. Elkarbizitza/familia eredu berriak ikusaraztea. |
| **3. Kontziliazio politika eta zerbitzu publikoak eta zaintza eta erantzukidetasun sareak bultzatzea.** | 3.1. Norberaren mugikortasun premiei erantzutea, kontziliazioa errazteko. |
| | 3.2. Amak bakarrak osaturiko familiei laguntzea, egoera zailean badaude. |
| | 3.3. Oporretan adin txikiak zaintzeko dauden baliabideen berri jakinaraztea. |
| | 3.4. Zaintza sare komunitarioen sorrera bultzatzea. |
| **4. Etxeko lanaren balioa Donostian ikusaraztea.** | 4.1. Etxeko langileen errealitatera hurbiltzen erraztea. |
| **5. Zaintzen arloan baldintza duinen alde lan egitea.** | 5.1. Etxeko Langileen erakundea bultzatzea. |
| | 5.2. Etxeko lanetan espezializaturiko aholkularitza zerbitzua eskaintzea. |
| **6. Hiria kontziliazio erantzukidea errazteko diseinatzea.** | 6.1. Hiriaren diseinuan eta antolakuntzan genero ikuspegia bideratzea. |

# 1. HELBURU ZEHATZA

Donostiako pertsona zaintzaileen egoera hobetzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 1.1. | *Pertsona zaintzaileen aldeko Planaren* ezarpena. | ➲ Pertsona zaintzaileen aldeko Planean aintzat harturiko neurriak hartzea lehenestea.<br>➲ Berdintasunerako Planaren arabera garatuko diren ekintza planetan zaintzaren aldeko neurriak hartzea.<br>➲ Baliabide ekonomikoz hornitzea.<br>➲ Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko koordinaziorako bideak urratzea. | ■ Gizarte Ongizatea<br>■ Berdintasuna<br>■ Gipuzkoako Foru Aldundia | • Aldeko planaren gauzatze mailaren portzentajea.<br>• Zaintzaren aldeko neurriak hartu dituzten ekintza planak guztira. |

2014 2015 2016 2017 2018

AURREKONTUA
49.000 €
1.700 ordu

• Pertsona zaintzaileen auto-pertzepzioa.

# 2. HELBURU ZEHATZA

## Zaintzaren erantzukidetasuna eta etika bultzatzea.

| neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|
| 2.1. Zinegotziek zaintzari emaniko dedikazio denborak ikusaraztea.   | ➲ Galdeketa bat prestatzea, udal batzarrak aste batean denbora nola erabiltzen duen ikusteko.<br>➲ Zinegotziei aste berean betetzeko eskatzea.<br>➲ Datuen analisia.<br>➲ Konklusio nagusien berri ematea.<br>➲ Gomendioen dekalogoa prestatzea.<br>➲ Aplikazioa gainerako udal langileei zabaltzea. | ■ Udal Gobernua<br>■ Batzorde Politikoa<br>■ Auzoak eta herritarren parte hartzea<br>■ Berdintasuna | • Erantzuniko galdeketak guztira.<br>• Gobernu taldean eta gainerako taldeetan zaintza lanetara emaniko denboraren batez bestekoa, ehunekotan.<br>• Konklusioen berri emateko ekintzak guztira. |
| 2.2. Etxeko eta zaintza lanetan haur eta gazteen parte hartzea bultzatzea, mutilen jardunak bereziki aintzat harturik. | ➲ Erantzukidetasunerako Tailerrak antolatzea. | ■ Gazteria<br>■ Hezkuntza<br>■ Berdintasuna<br>■ Baikara | • Tailerretan parte harturiko haurren portzentajea.<br>• Urtean antolaturiko tailerrak guztira. |
| 2.3. Gizonei etxeko eta zaintza lanen aurrean ardurak hartzera bultzatzea. | ➲ Gizonei zuzenduriko tailerrak antolatzea. | ■ Berdintasuna<br>■ Berdintasunaren alde diharduten bitariko edo/eta gizonen elkarteak. | • Tailerretan parte hartu duten gizonak guztira.<br>• Antolaturiko tailerrak guztira. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 2.4. Enpresen kontziliazio erantzukidea bultzatzea. | ➲ Enpresa eta eragile sozioekonomikoekin batera, enpresetan erantzukidetasuna eta haren aldeko kultura landu. | Sustapena<br>Donostiako eragile sozioekonomikoak | • Enpresa parte hartzaileak guztira. |
| 2.5. Elkarbizitza/familia eredu berriak ikusaraztea. | ➲ Eredu nagusitik kanpo dihardut en familia motei buruzko ikerketak, azterlanak eta abar garatzea. | Gizarte Ongizatea<br>Gazteria<br>Giza Eskubideak<br>Berdintasuna<br>Elkarteak | • Eginiko azterlanak guztira.<br>• Konklusioen berri emateko ekintzak guztira. |
| 2014 2015 2016 2017 2018 | AURREKONTUA<br>39.000 €<br>1.400 ordu | | • Enpresek bideraturiko ekintzak guztira.<br>• Azterlanak helarazitako pertsonak guztira (Argitalpen Kabinetea). |

# 3. HELBURU ZEHATZA

**Kontziliazio politika eta zerbitzu publikoak eta zaintza eta erantzukidetasun sareak bultzatzea.**





| | neurriak | ekintzak | | |
|---|---|---|---|---|
| 3.1. | Norberaren mugikortasun premiei erantzutea, kontziliazioa errazteko. | ➲ Herritarrei zerbitzuaren berri ematea.<br>➲ Plan pertsonalizatuen diseinua, norbanakoen kontziliazioa premiei erantzuteko. | Mugikortasuna<br>Berdintasuna | • Eginiko jakinarazpenak guztira.<br>• Urtean jasoriko eskaerak guztira.<br>• Prestaturiko planak guztira. |
| 3.2. | Amak bakarrak osaturiko familiei laguntzea, egoera zailean badaude. | ➲ Familia hauen premia larrienak identifikatzea.<br>➲ Premia horiei egun erantzun ahal izango dieten gizarte baliabideak identifikatzea.<br>➲ Baliabide berrien edo egungoen hobekuntzaren premia ebaluatzea. | Gizarte Ongizatea<br>Berdintasuna<br>Lanak eta Proiektuak<br>Hezkuntza | • Familia parte hartzaileak guztira.<br>• Proposaturiko hobekuntzak edo zerbitzuak guztira |
| 3.3. | Oporretan adin txikiak zaintzeko dauden baliabideen berri jakinaraztea. | ➲ Administrazioak, elkarteek, enpresek... eskaintzen dituzten baliabideen gaineko informazioa biltzea.<br>➲ Informazio hau jakinaraztea. | Hezkuntza<br>Gazteria<br>Berdintasuna<br>Elkarteak | • Jakinarazitako baliabideak guztira. |
| 3.4. | Zaintza sare komunitarioen sorrera bultzatzea. | ➲ *Herritarren Ataria* edo *denbora bankuen* motako ekimenen berri ematea.<br>➲ Haietan gizonen parte hartzea bultzatzea. | Berdintasuna<br>Gizarte Ongizatea<br>Elkarteak | • Elkarkidetzan eginiko ekintzak guztira. |




AURREKONTUA
39.000 €
1.400 ordu

• Sareetan parte hartzen duten emakumeen eta gizonen portzentajea.
• Uztartze premiei emaniko erantzunen araberako gogobetetze maila.

# 4. HELBURU ZEHATZA

Etxeko lanaren balioa Donostian ikusaraztea.

## neurriak

4.1. Etxeko langileen errealitatera hurbiltzen erraztea.

## ekintzak

- Topalekuak antolatzea.
- Hiriko etxeko langileen bizibideak prestatzea.
- Esperientzia horien berri ematea.



- Gizarte Ongizatea
- Berdintasuna
- Elkarteak



- Emakume parte hartzaileen kopurua, topaketa bakoitzeko.
- Prestaturiko bizibideak guztira.
- Hedabideetan bizibideen aipamena egitea.

2014 2015 2016 2017 2018

AURREKONTUA
20.000 €
700 ordu

# 5. HELBURU ZEHATZA

Zaintzen arloan baldintza duinen alde lan egitea.

| neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|
| 5.1. Etxeko Langileen erakundea bultzatzea. | ➲ Beste lurralde batzuetako erakundeekiko harremanak bideratzea.<br>➲ Elkartera biltzearen onuren gaineko sentsibilizazioa.<br>➲ Talde antolatu baten sorrera bultzatzea. | ■ Zaintzaren talde gidaria<br>■ Sindikatuak | • Sorturiko taldea. |
| 5.2. Etxeko lanetan espezializaturiko aholkularitza zerbitzua eskaintzea. | ➲ Elkarte espezializatuekin harremanetan jartzea (Bizkaiko ELE - Etxeko Langileen Elkartearekin adibidez), lankidetzarako akordio baten aukera ebaluatzeko.<br>➲ Lankidetzarako akordioa sinatzea.<br>➲ Interesaturiko emakumeei jakinaraztea. | ■ Berdintasuna<br>■ Elkarte espezializatuak<br>■ Emakumeen Etxea Elkartea | • Eginiko kontsultak guztira.<br>• Aholkularitza Zerbitzuaren aurreko betetasun maila. |




AURREKONTUA
30.000 €
1.000 ordu

- Lagundutako emakumeen artetik, lan baldintzak hobetu dituztenen portzentajea.

# 6. HELBURU ZEHATZA

Hiria kontziliazio erantzukidea errazteko diseinatzea.





## neurriak

6.1. Hiriaren diseinuan eta antolakuntzan genero ikuspegia bideratzea.

## ekintzak

- Udaleko hirigintza, lanak eta mantentze saileko lan teknikoa prestatzea.
- Hirigintza eta genero adierazleen sistema bat sortzea, mailaz mailako plan guztietara hedatzeko.
- Emakumeak eta Hiria Foroaren ekarpenak jasotzea.
- Egin behar diren edo birmoldatu behar diren auzoen inguruetako emakumeen partaidetza bultzatzea.
- Udalaren ekimen parte hartzaileetan jasotzen diren berdintasunerako proposamenen bilketa sistematizatzea.

- Hirigintza
- Hiri Antolatzeko Plan Orokorra
- Mugikortasuna
- Proiektu eta obrak
- Emakumeak eta Hiria Foroa

- Arloko teknikari prestatuen portzentajea, sexuaren arabera.
- Jasoriko ekarpenak guztira.
- Genero adierazleen sistemaren bidez ebaluatutako planen portzentajea.
- Hiri antolamenduan bideraturiko hobekuntzak guztira.




AURREKONTUA
20.000 €
700 ordu

## 3. Lerroa:

# INGURUNE IRAUNKORRA ETA INDARKERIARIK GABEKOA

Emakumeen eta gizonen artean dauden aldeen adierazpide gorena da indarkeria matxista, eta bi mailatatik ekin behar zaio haren aurkako borrokari. Identifikatu eta zaindu egin behar dira indarkeria matxista pairatzen ari diren emakumeak, alde batetik, eta haren aurreko prebentzioa bideratu behar da, bestetik.

**Indarkeria matxista**

“Indarkeria matxista” terminoak garbi azaltzen du matxismoak barnean duen botere-desberdintasunaren harremana eta, aldi berean, ahalbidetzen digulako kontuan hartzea indarkeria matxista emakumeek batez ere jasaten badute ere, sistema heteropatriarkalak gizon eta emakumeei ezartzen dizkien eredu hegemonikoak emakumeek bezala hausten dituzten beste pertsona batzuek ere jasan dezaketela. Indarkeria horrek zigortu egiten ditu ereduak finkatzen dituen aginduak betetzen ez dituzten pertsona guztiak. Ildo horretan, lesbiana, gay, transexual eta bisexualak ere indarkeria matxistaren “xede” bilaka daitezke, egungo eredu heteronormatibotik irteten diren neurrian.

*Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana 2012-2020*

Horregatik, Berdintasunerako III. Plan honek aintzat harturiko neurri eta helburu guztiek prebentzio izaera dute, genero desberdintasunei ekin eta gizartea aldarazi nahi duten aldetik. Prebentzioa da, zehatz-mehatz, lerro honetako neurri eta helburuen xedea.

Ekoizpen, erreprodukzio eta kontsumo modu berriak bultzatuko dituen hiri iraunkor baten eredurantz aurrera jotzea da indarkeria matxistarik gabeko inguruneetarantz aurrera jotzea.

### helburuak

- Balioen aldaketa bultzatzea, genero estereotipoak eta rolak ezdeusean utziz.
- Herritarrak indarkeria matxistaren ekinaz jabearaztea.
- Prebentzioa eta ekintzak indarkeria matxistaren aurrean.
- Iraunkortasunerako politika publikoen erdian kokatzea.

### esparrua

- ☐ *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.*III. Titulua. 46. artikulua eta VII. Kapitulua. Emakumeen aurkako indarkeria.
- ☐ *EAEko emakumeen eta gizonen arteko VI. Berdintasun Plana. Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Gobernantza*
  - *I. Ardatza. Balio Aldaketa eta Emakumeen Ahalduntzea. I. Programa: Balio aldaketa.*
  - *III. Ardatza. Emakumeen aurkako indarkeria*

| helburuak | neurriak |
|---|---|
| **1. Indarkeria matxista-mota desberdinez jabearaztea desberdintasunaren muturreko adierazpena den aldetik.** | 1.1. Indarkeria matxistaren ezagutza bultzatzea. |
| | 1.2. Mugimendu feministak indarkeria matxistaren aurka bultzaturiko ekimenak sustatzea. |
| | 1.3. Hiriko hedabideak indarkeriaren gaineko albisteen izaeraz gogoetaraztea. |
| **2. Indarkeria matxistaren aurreko prebentzioa neskato eta emakume gazteen artean zabaltzea.** | 2.1. Haurtxoko eta Gaztelekuetako hezitzaileekin batera lan egitea. |
| | 2.2. Indarkeria matxistaren aurreko prebentzioa neskato eta emakume gazteekin lantzea, babesik gabeko haurren aldeko programa osoan zehar. |
| | 2.3. Sentsibilizazio kanpaina zehatzak garatzea. |
| | 2.4. Emakume gazteen artean ahalduntzea sustatzea. |
| **3. Sexu jazarpenek eta jazarpen sexistek baldintzaturiko lan egoeren aurrean, prebentzioa eta jarduera bultzatzea.** | 3.1. Sexu jazarpen eta jazarpen sexista kasuetarako prebentzio- eta jarduera-udal protokoloa eguneratzea. |
| | 3.2. Enpresa publiko eta pribatuetan praktika on gisa ezagutaraztea. |
| **4. Jarrera eragilea garatzea, indarkeria matxistak baldintzaturiko egoerak identifikatzeko.** | 4.1. Osasunaren profesionalekin batera lan egitea. |
| | 4.2. Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei edo indarkeria hori bideratzen duten gizonen inguruneei berezko espazioak eskaintzea. |
| **5. Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei kalitatezko arreta eskaintzea** | 5.1. Arreta Berdintasun Bulegoaren eta IMBAZ Indarkeria Matxistaren Biktimen Arreta Zerbitzuaren artean koordinatzea. |
| | 5.2. *Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko protokoloaren* aplikazioa bermatzea. |
| | 5.3. Premia zehatzei loturiko baliabide eta zerbitzu gehiago eskaintzea. |
| | 5.4. Emakumeen Etxeko zerbitzu juridikoei eta psikologikoei laguntzea. |
| | 5.5. Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei ahalduntzea indartuko duen arreta eskaintzea. |
| | 5.6. Udal Gobernuaren jarduera egokia bermatzea, eraso eta hilketa sexisten kasuetan. |
| **6. Emakumeek hiria segurtasunez erabili ahal izateko modua egitea.** | 6.1. Hiriko leku eta gune ez-seguruenak desagerraraztea. |
| | 6.2. Berriro ere puntu kritikorik ez dela sortuko bermatzea. |

## 1. HELBURU ZEHATZA

Indarkeria matxista-mota desberdinez jabearaztea desberdintasunaren muturreko adierazpena den aldetik.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 1.1. | Indarkeria matxistaren gaineko ezagutza bultzatzea. | ➲ Indarkeria matxistari buruzko azterlan eta ikerketetan lankidetza eskaintzea. | ■ Puntu Kritikoetarako Taldeak eratuko dituen Arloak. | • Lankidetzan bideraturiko azterlanak eta ikerketak guztira. |
| 1.2. | Mugimendu feministak indarkeria matxistaren aurka bultzaturiko ekimenak sustatzea. | ➲ Indarkeria matxistaren gaineko sentsibilizazio kanpaina eta programetan lankidetza eskaintzea. | ■ Berdintasuna | • Laguntzen diren kanpainak eta programak guztira. |
| 1.3. | Hiriko hedabideak indarkeriaren gaineko albisteen izaeraz gogoetaraztea. | ➲ Prentsan albiste horiek jasotzen duten trataerari buruzko tailerrak antolatzea.<br>➲ Indarkeriak Hedabideetan jasotzen duen trataeraren gaineko estilo liburua prestatzea. | ■ Berdintasuna<br>■ Argitalpen Kabinetea | • Lankidetzan dihardúten hedabideak guztira. |




AURREKONTUA
63.000 €
1.600 ordu

- Indarkeria arbuiatzen duten gizon eta emakumeen portzentajea (Galdeketa).
- Indarkeria matxistaren aurkako ekitaldi publikoetan parte hartzen duten gizon eta emakumeen portzentajea.

# 2. HELBURU ZEHATZA

Indarkeria matxistaren aurreko prebentzioa neskato eta emakume gazteen artean zabaltzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 2.1. | Haurtxoko eta Gaztelekuetako hezitzaileekin batera lan egitea. | ➲ Hezitzaileei prestakuntza zehatza eskaintzea.<br>➲ Arlo honen inguruko lan plangintzak urtero lantzea. | Gazteria<br>Berdintasuna | • Berdintasunean prestakuntza jasoriko hezitzaileen portzentajea. |
| 2.2. | Indarkeria matxistaren aurreko prebentzioa neskato eta emakume gazteekin lantzea, babesik gabeko haurren aldeko programa osoan zehar. | ➲ Baliabide ekonomikoz hornitzea. | Gizarte Ongizatea | • Bideraturiko esku hartzeak guztira. |
| 2.3. | Sentsibilizazio kanpaina zehatzak garatzea. | ➲ Beldur barik kanpainan parte hartzea.<br>➲ Beste administrazio batzuekin, GFArekin bereziki, baterako jarduerak bultzatzea. | Berdintasuna<br>Emakunde | • Garaturiko kanpainak guztira. |
| 2.4. | Emakume gazteen artean ahalduntzea sustatzea. | ➲ Gazteen ahalduntze taldeak sustatzea.<br>➲ Autodefentsa ikastaroak eskaintzea.<br>➲ Eskolako Agenda 21 programa generoaren ikuspegitik lantzea. | Berdintasuna<br>Gazteria<br>Emakumeen Etxea Elkartea<br>Arlo honetan ari diren elkarteak. | • Tailer eta ikastaroetan parte hartzen duten emakume gazteak guztira.<br>• Antolaturiko tailer eta ikastaroak guztira. |

2014 2015 2016 2017 2018

AURREKONTUA
63.000 €
1.600 ordu

• Hautemaniko indarkeria kasuen murrizketa, neskato eta emakume gazteen artean.

# 3. HELBURU ZEHATZA

Sexu jazarpenek eta jazarpen sexistek baldintzaturiko lan egoeren aurrean, prebentzioa eta jarduera bultzatzea.




| neurriak | ekintzak | | |
|---|---|---|---|
| 3.1. Sexu jazarpen eta jazarpen sexista kasuetarako prebentzio- eta jarduera-udal protokoloa eguneratzea. | ➲ Egungo protokoloa berrikustea.<br>➲ Hobekuntzak proposatzea.<br>➲ Langile guztiei haren berri ematea. | ■ Berdintasunerako Batzordea<br>■ Berdintasuna | • Eguneraturiko protokoloaren onarpen eguna. |
| 3.2. Enpresa publiko eta pribatuetan praktika on gisa ezagutaraztea. | ➲ Enpresa publikoekin lan saioak egitea.<br>➲ Udalaren partaidetza eskaintzea, enpresa elkarteek edo beste erakunde publiko batzuek antolaturiko jardunaldi eta topaketetan. | ■ Berdintasunerako Batzordea<br>■ Berdintasuna | • Aintzat hartuak diren udal erakundeak eta enpresak guztira. |







• Esku hartu behar izan den eraso sexistak guztira.

AURREKONTUA
11.000 €
600 ordu

# 4. HELBURU ZEHATZA

Jarrera eragilea garatzea, indarkeria matxistak baldintzaturiko egoerak identifikatzeko.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 4.1. | Osasunaren profesionalekin batera lan egitea. | ➲ Osasunaren arloko talde eta erakunde profesionalekin harremanetan jartzea, indarkeria matxistaren arloan.<br>➲ Egungo baliabideen berri ematea. | ■ Gizarte Ongizatea<br>■ Osasunaren arloko talde, erakunde eta kolegio profesionalak | • Lankidetzan diharduten erakundeak guztira. |
| 4.2. | Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei edo indarkeria hori bideratzen duten gizonei berezko espazioak eskaintzea. | ➲ Indarkeria matxistari buruzko topaguneak eta gogoetarako tailerrak antolatzea. | ■ Gizarte Ongizatea<br>■ Berdintasuna<br>■ Emakumeen Etxea Elkartea<br>■ Arlo honetan ari diren emakume elkarteak. | • Garaturiko tailerrak guztira. |

2014 2015 2016 2017 2018

AURREKONTUA
37.000 €
1.000 ordu

• Indarkeria matxistarekin loturik hautemaniko egoerak guztira.

# 5. HELBURU ZEHATZA

## Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei kalitatezko arreta eskaintzea

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 5.1. | Arreta Berdintasun Bulegoaren eta IMBAZ Indarkeria Matxistaren Biktimen Arreta Zerbitzuaren artean koordinatzea. | ➲ Urteko helburuak eta bilerak aintzat harturiko programazioaren arabera bideratzea. | Gizarte Ongizatea<br>Berdintasuna | • Urteko helburuak batez beste.<br>• Urteko bilerak batez beste. |
| 5.2. | *Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko protokoloaren* aplikazioa bermatzea. | ➲ Protokoloaren jarraipena egitea.<br>➲ Puntu sendoak eta hobetu beharreko arloak identifikatzea.<br>➲ Identifikatutako premiei erantzuteko bitartekoak bideratzea. | Batzorde Politikoa<br>Gizarte Ongizatea<br>Berdintasuna | • Bideraturiko esku hartzeak guztira. |
| 5.3. | Premia zehatzei loturiko baliabide eta zerbitzu gehiago eskaintzea. | ➲ Sortzen diren unean, premiak identifikatuko dituen komunikabide bat zehaztea.<br>➲ Identifikatutako premiak aztertzea.<br>➲ Hobekuntzarako proposamena egitea. | Gizarte Ongizatea<br>Berdintasuna | • Baliabide eta zerbitzu kopurua emendatzea. |
| 5.4. | Emakumeen Etxeko zerbitzu juridikoei eta psikologikoei laguntzea. | ➲ Baliabide ekonomikoz hornitzea. | Berdintasuna<br>Emakumeen Etxea Elkartea | • Arreta jasoriko emakumeak guztira. |
| 5.5. | Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeen ahalduntzea indartuko duen arreta eskaintzea. | ➲ Indarkeria matxista pairaturiko emakumeei arreta edo laguntza eman beharreko udal langile eta, oro har, baliabideei prestakuntza zehatza eskaintzea. | Giza Baliabideak<br>Gizarte Ongizatea<br>Berdintasuna<br>Arlo honetan ari diren elkarteak. | • Prestaturiko langileen portzentajea, sexuaren arabera banatua. |

5.6. Udal Gobernuaren jarduera egokia bermatzea, eraso eta hilketa sexisten kasuetan.

- Udal Gobernuaren jarduera egokia bermatzea, eraso eta hilketa sexisten kasuetan.

- Tokiko Gobernu Batzarra

- Bideraturiko esku hartzeak guztira.




AURREKONTUA
63.000 €
1.400 ordu

- Pairaturiko indarkeria matxista dela-eta arreta jasoriko emakumeak guztira.
- Zerbitzuaren ebaluazioa, arreta jasoriko emakumeen partetik.

# 6. HELBURU ZEHATZA

Emakumeek hiria segurtasunez erabili ahal izateko modua egitea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 6.1. | Hiriko leku eta gune ez-seguruenak desagerraraztea. | ➲ Hiriko Puntu Kritikoak hautematea.<br>➲ Puntu Kritikoen Maparen eguneratzea sistematizatzea.<br>➲ Herritarren, batez ere emakumeen, parte hartzea erraztea, puntu kritikoak identifikatzerakoan.<br>➲ Identifikaturiko hobekuntzak Puntu Kritikoen Mapan zehaztea. | Puntu Kritikoetarako Taldea<br>Hirigintza<br>Lanak eta Mantentzea<br>Gizarte Ongizatea<br>Auzoak eta Herritarren parte hartzea<br>Mugikortasuna<br>Dbus<br>Udaltzaingoa<br>Berdintasuna | • Puntu Kritikoak zuzentzeko bideraturiko esku hartzeak guztira.<br>• Identifikaturiko puntu berriak guztira. |
| 6.2. | Berriro ere puntu kritikorik ez dela sortuko bermatzea. | ➲ Kontratatutako hirigintza proiektuak onartzen edo balioztatzen dituzten langile guztiak Hirigintza eta Generoa arloan prestatzea.<br>➲ Hirialde eta auzoen diseinuan saihestu beharreko aspektuen dekalogoa lantzea.<br>➲ Proiektuen onarpenen kontrolerako adierazleak aintzat hartzea. | Hirigintza<br>Giza Baliabideak<br>Emakumeak eta Hiria Foroa | • Landuriko dekalogoa.<br>• Ebaluaturiko planak edo proiektuak guztira.<br>• Plan edo proiektu hauetan kontrolerako adierazleak betetzeko eginiko aldaketak guztira. |




AURREKONTUA
26.000 €
700 ordu

• Emakumeen segurtasunaren auto-pertzepzioa (Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko hurrengo diagnostikoa).

# 4. Lerroa:

# JAIAK ETA KULTURA EZ SEXISTA

Herri baten gizarte antolakuntza ereduak ezagutzeko gakoak dira inolaz ere jaiak eta kultura. Emakumeen partaidetza parekidea hiriko bizitza giro guztietan ez da benetakoa izango, legezkotasuna aitortzeaz gainera, parte hartze hori egiaz eta berme guztiez gauzatu ahal izan dezaten arte.

*" Emakumeen (jaietan eta kultura ekitaldietan) parte-hartzea ez da soilik jaiaz gizonen baldintza-berdintasun beretan gozatu ahal izatea edo ez, izan ere emakumeek gizartean okupatzen duten lekua irudikatu eta legitimatzen duen elementu bilakatzen da".*

*Gipuzkoako jaien azterketa genero ikuspegitik. 2010*

*Hiriko jaietan parte hartzen duten emakumeen kopurua gero eta handiagoa den arren, haien antolakuntzatik kanpo diraute betiere emakumeek. Gainera, jai giroa emakumeentzako gune arriskutsuetan hedatzen da oraindik ere eta, beraz, emakumeen parte hartze egiaz parekidea bermatuko duten esku hartze eta prebentzio neurriak lehenetsi behar dira inolaz ere.*

*Donostiako Emakumeen eta Gizonen egoerari buruzko diagnostikoa. Donostia.*

## helburuak

- Emakumeek eta gizonek hiriko jaietan berdintasunean parte hartu ahal izatea bermatzea.
- Emakumeek hiriko historia osoan barrena kulturaren arloan eginiko ekarpenak ezagutaraztea.
- Hiriko kultura eskaintzan emakume artisten presentzia bultzatzea.

## esparrua

- ☐ *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.* 25. artikulua. Kultura jarduerak.
- ☐ *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana.* I. Ardatza: Balio Aldaketa eta emakumeen ahalduntze pertsonala. III. Ardatza: Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea.

| helburuak | neurriak |
|---|---|
| **1. Jaietan indarkeria matxista prebenitzea** | 1.1. Gizarte eragileek *Jai espazioetako prebentzio eta jardunbiderako protokoloaren* ezagutza bermatzea. |
| | 1.2. Prebentzio neurriak kanpoko enpresek antolaturiko jai ekitaldietara zabaltzea. |
| | 1.3. Beharreko bitartekoak bideratzea, auzoetako jaiak antolatzen dituzten elkarteek indarkeria matxistaren prebentziorako neurriak har ditzaten. |
| | 1.4. Jaietako indarkeria matxistaren gaineko sentsibilizazio kanpainak egitea. |
| **2. Jaietan emakumeen parte hartze eragilea bultzatzea.** | 2.1. Emakumeen parte hartzea bermatzea, hiriko jaietan modu eraginkorrean parte hartzen duten molde guztietako talde, elkarte eta abarretan. |
| | 2.2. Hiriko jaien antolakuntzan emakumeen parte hartzea bultzatzea. |
| | 2.3. Jaietako publizitate kanpainetan eta karteletan emakumeak protagonista gisa ikusaraztea. |
| | 2.4. *Emakumeen parte hartzea Danborradan* azterlanean hobekuntzarako eginiko proposamenak gauzatzea. |
| **3. Kultura ekitaldi eta jai ez sexistak bultzatzea** | 3.1. Estereotipo sexistarik gabeko kultur edukiak bultzatzea. |
| | 3.2. Neskentzako arte eta joko jardunak antolatzea. |
| **4. Kultura eskaintzan, emakumeen kontratazioa emendatzea** | 4.1. Jaietako kultura eskaintzan, emakumeen presentzia bermatzea. |
| | 4.2. Hiriko kultura eskaintzan, antzerki, dantza, musika eta abarretan, emakume artisten presentzia bultzatzea. |
| **5. Kultura eskaintza feminista hirian bultzatzea** | 5.1. Arteak eta feminismoak elkarri egiten dioten ekarpenaren inguruan hausnarketa guneak bultzatzea |
| | 5.2. Liburutegietan feminismoari buruzko atala sustatzea. |
| **6. Giro gastronomikoan emakumeen presentzia bultzatzea** | 6.1. Emakumeek gastronomiaren arloan eginiko ekarpena ikusaraztea. |
| | 6.2. Gastronomiarekin loturiko ekitaldi eta espazio publikoetan, emakumeen parte hartzea bultzatzea. |

# 1. HELBURU ZEHATZA

## Jaietan indarkeria matxista prebenitzea

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 1.1. | Gizarte eragileek *Jai espazioetako prebentzio eta esku hartzeko protokoloaren* ezagutza bermatzea. | ➲ Jai espazioetako Prebentzio eta esku hartzeko protokoloa zabaltzea.<br>➲ Jaietan parte hartzen duten gizarte eragileekin lan egitea: tabernak, obradoreak, taxiak, hontzak…<br>➲ Ebaluazioa jai bakoitzaren bukaeran. | Donostia Kultura<br>Gizarte Ongizatea<br>Berdintasuna<br>Gizarte eragileak | • Lankidetzan ari diren eragileak guztira.<br>• Hobekuntzarako jaso diren iradokizunak guztira. |
| 1.2. | Prebentzio neurriak kanpoko enpresek antolaturiko jai ekitaldietara zabaltzea. | ➲ Irudi eta musika sexisten erabilera debekatzea.<br>➲ Kontratazioan berdintasunaren aldeko klausulak bideratzea. | Donostia Kultura<br>Euskara | • Klausulak bideratu dituzten kontratuak guztira.<br>• Onarturiko programak guztira. |
| 1.3. | Beharreko bitartekoak bideratzea, auzoetako jaiak antolatzen dituzten elkarteek indarkeria matxistaren prebentziorako neurriak har ditzaten. | ➲ Dirulaguntzak aintzat hartzeko irizpideen artean, prebentziorako neurriak hartu izana gogoan edukitzea.<br>➲ Taberna eta txosnetarako esku hartze protokolo bat lantzea.<br>➲ Berdintasunaren arloko prestakuntza eta autodefentsa feministarako ikastaroak eskaintzea. | Donostia Kultura<br>Berdintasuna<br>Jai Batzordeak | • Prebentziorako proposaturiko neurriak guztira.<br>• Protokoloa helarazi zaien eragileak guztira.<br>• Prestakuntzan trebatu diren pertsonak guztira, sexuaren arabera banatuak. |
| 1.4. | Jaietako indarkeria matxistaren gaineko sentsibilizazio kanpainak egitea. | ➲ Hedabideei zuzenduriko Dekalogoa zabaltzea.<br>➲ Jaietan, autodefentsa feministarako jarraibideak zabaltzea. | Berdintasuna<br>Donostia Kultura<br>Gizarte Ongizatea<br>Argitalpen Kabinetea | • Dekalogoa helarazi zaien hedabideak guztira.<br>• Autodefentsa feministarako banatu diren jarraibide-paperak guztira. |

2014 2015 2016 2017 2018

AURREKONTUA
32.000 €
700 ordu

• Murrizketa emakumeek jai espazioetan pairaturiko erasoen kopuruan.

## 2. HELBURU ZEHATZA

Jaietan emakumeen parte hartze eragilea bultzatzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 2.1. | Emakumeen parte hartzea bermatzea, hiriko jaietan modu eraginkorrean parte hartzen duten molde guztietako talde, elkarte eta abarretan. | ➲ Udal ekitaldi publikoetan, talde eta elkarteen parte hartzea *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea* betetzearen baitan uztea. | Batzorde Politikoa<br>Donostia Kultura<br>Zuzenean loturiko elkarteak. | • Jaietako parte hartzaileen artean, sexua dela-eta bereizkeriarik bideratzen ez duten erakundeen portzentajea. |
| 2.2. | Hiriko jaien antolakuntzan emakumeen parte hartzea bultzatzea. | ➲ Dirulaguntzetarako deialdietan, antolakuntzarako batzordeetan emakumeek parte hartzea puntuz sariztatzea.<br>➲ Elkarteekin, emakumeentzako egun bat, bazkari bat… zehazteko aukera aintzat hartzea.<br>➲ Egitaraua emakumeen eta gizonen artean gauzatzea.<br>➲ Programazio hori jaien egitarau ofizialean zehaztea. | Donostia Kultura<br>Zuzenean loturiko elkarteak<br>Emakumeen Etxea Elkartea | • Antolakuntzarako batzordeetan, emakumeen portzentajearen hazkundea.<br>• Aste Nagusian emakumeen ahalduntzeari begira antolaturiko ekitaldiak guztira. |
| 2.4. | Jaietako publizitate kanpainetan eta karteletan emakumeak protagonista gisa ikusaraztea. | ➲ Kartelen bilketa.<br>➲ Azterketa jai batzordeekin batean. | Donostia Kultura<br>Berdintasuna<br>Batzordeak | • Emakumea protagonista duten jai kartelen portzentajea. |
| 2.5. | Emakumeen parte hartzea Danborradan azterlanean hobekuntzarako eginiko proposamenak gauzatzea. | ➲ Ekintzak lehenestea, beharreko epeak eta baliabideak zehaztuta.<br>➲ Elkarteei haien berri ematea. | Berdintasuna<br>Donostia Kultura<br>Zuzenean loturiko elkarteak | • Gauzaturiko proposamenen portzentajea. |

2014 2015 2016 2017 2018

AURREKONTUA
19.000 €
700 ordu

• Jai Batzordeetako kide diren emakumeen portzentajea.

# 3. HELBURU ZEHATZA

## Kultura ekitaldi eta jai ez sexistak bultzatzea

| neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|
| 3.1. Estereotipo sexistarik gabeko kultur edukiak bultzatzea. | ➲ Jaietan, emakumeek historia osoan zehar eginiko ekarpenak ikusaraztea.<br>➲ Kultur programazioa eskaintzen duten taldeei aholkularitza ematea. | ■ Donostia Kultura<br>■ Berdintasuna<br>■ Euskadiko Filmategia | • Hautemaniko pertsonaiak guztira.<br>• Eginiko ekarpenak guztira. |
| 3.2. Neskentzako arte eta joko jardunak antolatzea. | ➲ Espazioen diseinua, neskek egungo musikan modu eraginkorrean parte har dezaten.<br>➲ Kultur etxeetako entsegu gelen erabilera bultzatzea nesken artean. | ■ Berdintasuna<br>■ Gazteria<br>■ Donostia Kultura<br>■ Musika eta Dantza Eskola<br>■ Donostia 2016<br>■ Zuzenan loturiko elkarteak | • Bultzaturiko ekintzak guztira.<br>• Neska parte hartzaileak guztira. |

2014 2015 2016 2017 2018

AURREKONTUA
29.000 €
1.000 ordu

• Jai eta kultura ekitaldietan parte harturiko emakumeen portzentajea.

# 4. HELBURU ZEHATZA

## Kultura eskaintzan, emakumeen kontratazioa emendatzea

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 4.1. | Jaietako kultura eskaintzan, emakumeen presentzia bermatzea. | ➲ Emakume artisten gaineko datu baseak ezagutaraztea, arlo eta jatorriaren arabera.<br>➲ Jaietako kultura eskaintzan, emakume parte hartzaileen gutxieneko kuota zehaztea. | Donostia Kultura | • Hiriko jaietako kultura eskaintzan parte hartu duten emakumeen portzentajea. |
| 4.2. | Hiriko kultura eskaintzan, antzerki, dantza, musika eta abarretan, emakume artisten presentzia bultzatzea. | ➲ Emakume artisten gaineko datu baseak ezagutaraztea, arlo eta jatorriaren arabera.<br>➲ Jaietako kultura eskaintzan, emakume parte hartzaileen gutxieneko kuota zehaztea. | Donostia Kultura<br>Gazteria<br>Berdintasuna<br>Donostia 2016 | • Hiriko jaietako kultura eskaintzan parte hartu duten emakumeen portzentajea. |

2014 2015 2016 2017 2018

AURREKONTUA
1.000 €
300 ordu

• Jaietan eta kultura ekitaldietan kontratatu diren emakumeen kopuruaren hazkundea.

# 5. HELBURU ZEHATZA

## Kultura eskaintza feminista hirian bultzatzea





| | neurriak | ekintzak | | |
|---|---|---|---|---|
| 5.1. | Arteak eta feminismoak elkarri egiten dioten ekarpenaren inguruan hausnarketa guneak bultzatzea | ➲ Arte eta musika talde feministen gaineko datu basea prestatzea.<br>➲ Musika talde feministak kontratatzea.<br>➲ Genero identitatea, sexualitatea edo botere harremanen inguruan hausnarketa kritikoa sustatzen duten tokiko adierazpide artistikoak bultzatzea, esaterako Feministaldia.<br>➲ Kantari feministen kantaldia antolatzea.<br>➲ Emakumeen Etxeko Zinema Zikloa laguntzea. | Donostia Kultura<br>Berdintasuna<br>Donostia 2016<br>Emakumeen Etxea Elkartea<br>San Telmo Museoa<br>Untzi Museoa | • Prestaturiko datu basea.<br>• Urtean kontrataturiko talde feministak guztira.<br>• "Emakumeak eta Zinema" ziklora hurbilduriko emakume eta gizon ikusleak guztira. |
| 5.2. | Liburutegietan feminismoari buruzko atala sustatzea. | ➲ Liburutegien pertsona arduradunei berdintasunaren arloko prestakuntza ekitaldietara gonbidatzea.<br>➲ Liburutegien pertsona arduradunei Emakumeen Etxearen programazioa helaraztea.<br>➲ Liburutegien pertsona arduradunen artean talde bultzagilea sortzea. | Donostia Kultura<br>Koldo Mitxelena Gunea<br>Emakumeen Etxea Elkartea | • Feminismoaren gaineko atala duten liburutegien portzentajea.<br>• Liburutegien pertsona arduradunen artean, ikastaroetan ari izan direnak guztira, sexuaren arabera banatuak. |




AURREKONTUA
19.000 €
600 ordu

• Hiriko kultura ekitaldi feministen kopuruaren hazkundea.

# 6. HELBURU ZEHATZA

## Giro gastronomikoan emakumeen presentzia bultzatzea





| | neurriak | ekintzak | | |
|---|---|---|---|---|
| 6.1. | Emakumeek gastronomiaren arloan eginiko ekarpena ikusaraztea. | ➲ Gastronomiaren munduko eragileei emakumeek transmitituriko errezeten bilketan parte harraraztea.<br>➲ Sukaldean esku ona zutela-eta (hiriko ostatu, hotel eta jatetxeetako sukaldari eta “etxekoandreak” eta) ezagunak izan diren emakumeen gertaerak eta historiak biltzea.<br>➲ Historia horiek ezagutaraztea. | Berdintasuna<br>Basque Culinary Center<br>Gastronomiaren munduko eragileak | • Bilduriko errezetak guztira. |
| 6.2. | Gastronomiarekin loturiko ekitaldi eta espazio publikoetan, emakumeen parte hartzea bultzatzea. | ➲ Eragileekin lankidetzan aritzea, gastronomiaren munduan horren ezagunak ez diren giroetan (sommelierrak, esate baterako) emakumeak identifikatzeko.<br>➲ Gastronomiaren munduko epaimahai eta hitzaldietan, emakume parte hartzaileen kopurua handiagotzea.<br>➲ Ekitaldi publikoetan, emakume sukaldarien gutxieneko kuotak zehaztea. | Berdintasuna<br>Basque Culinary Center<br>Gastronomiaren munduko eragileak | • Lankidetzan ari diren eragileak guztira.<br>• Emakumeen portzentajea epaimahaietan. |

2014 2015 2016 2017 2018

AURREKONTUA
5.000 €
200 ordu

- Emakumeen kopuruaren hazkundea ekitaldi gastronomikoetan.

## 5. Lerroa:

# OHITURA OSASUNTSUAK ETA KIROLA



Munduko Osasun Erakundeak (MOE) zehazten duenez, "ongizate fisikoa, mentala eta soziala, eta ez soil-soilik eritasun eza" da osasuna eta, elikadura egokiaz, ariketa fisikoaren praktikaz, atsedenaz, higieneaz eta ohitura toxikorik gabe bizitzeaz gainera, ohitura osasuntsuen artekotzat jotzen ditu "barne orekaren beharra, auto-estimu eta norberaren onarpen maila egokia, norberaren natura ingurunearekiko eta, bereziki, familia, lan eta aisia giroetan bizikide dugun giza taldearekiko harreman egokia".

*Bere horretan dirau betiere emakumeen eta gizonen arteko desorekak arlo honetan ere. Hala bada, 2012ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan, parte-hartzaileen % 39,5 neskak ziren, eta % 60,5, aldiz, mutilak. Bestalde, emakumeen kirol-lizentziak lizentzia guztien % 20,56 baino ez ziren 2010ean, eta lizentzia zuten gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa zen 48 kirol-federazioetatik 44tan.*

Generoaren araberako eraginaren txostenak kirolaren arloan egiteko gidaliburua. *Emakunde 2012*

*Emakume baino gizon gehiago dago kirola egiteko ohitura osasuntsua duena eta maiz egiten duena, eta gizon baino emakume gehiago inoiz kirolik egiten ez duena.*

*Donostiako Emakumeen eta Gizonen egoerari buruzko diagnostikoa. Donostia.*

### helburuak

- Emakumeen ahalduntzea bultzatzea, beren gorputzaren ezagutzaren eta zaintzaren bitartez.
- Kirolaren praktikan berdintasuna bermatzea.

### esparrua

- ☐ *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.* 44. artikulua. Osasuna.
- ☐ *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana.* I. Ardatza: Balioen Aldaketa eta emakumeen ahalduntzea.
  - *2. Programa: Ahalduntze pertsonalaren aldeko laguntza.*
  - *3. Programa: Ahalduntze kolektiboaren aldeko laguntza.*

| helburuak | neurriak |
|---|---|
| **1. Emakumeek beren gorputzaren ezagutza eta zaintza hobetzea** | 1.1. Emakumeen Zaintzarako Plan Integrala diseinatzea: Zaintza fisikoa, emozionala, sexuala. |
| | 1.2. Produktu osasungarri-ekologikoen erabilera sustatzea. |
| **2. Osasuna arriskuan jar dezaketen praktiken aurreko prebentzioa** | 2.1. Gazte eta nerabeen mendekotasunak eta beraiekin lotura duten indarkeria matxistaren araberako egoerak aztertzea. |
| **3. Emakumeen artean jarduera fisikoa eta kirolaren praktika bultzatzea.** | 3.1. *Emakume eta gizonen egoeraren diagnosia eta lan ildoak Donostiako kirol esparruan* diagnostikoan esku hartzeari begira eginiko proposamenen ezarpena bermatzea. |
| | 3.2. Emakume gazteen artean, jarduera fisikoa eta kirol praktika uzteari aurrea hartzea. |
| | 3.3. Emakume helduen jarduera fisiko eta kirol praktikarako aukera malguak bideratzea. |
| | 3.4. Emakumeen artean bizikletaren erabilera sustatzea, gutxien erabiltzen duten kolektiboen artean batez ere. |
| | 3.5. Emakumeek kirolen praktikan sentitzen duten segurtasun ezari aurre egiteko estrategiak diseinatzea. |
| **4. Emakume kirolarien eta, bereziki, horien arteko profesionalen errealitatea, ahaleginak eta lorpenak ikusaraztea.** | 4.1. Kirolarien berdintasunaren aldeko ekimenak sustatzea, profesionalen artean batez ere. |
| | 4.2. Emakumeen kirolaren gizarte duintzearen alde jokatzea. |

# 1. HELBURU ZEHATZA

## Emakumeek beren gorputzaren ezagutza eta zaintza hobetzea

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 1.1. | Emakumeen Zaintzarako Plan Integrala diseinatzea: Zaintza fisikoa, emozionala, sexuala. | ➲ Emakumeen Etxean Ohitura Osasungarri eta Kirolerako Batzordea sortzea.<br>➲ Osasun, hezkuntza eta kiroletako eragileak proiektu horretara hurbilaraztea.<br>➲ Osasunaren arloan generoaren ikuspegiaren arabera lan egiten duten profesionalen zerrenda prestatzea.<br>➲ Norberaren zaintzarako tailerrak antolatzea.<br>➲ Gazte eta nerabeentzako sexualitate tailerrak antolatzea. | Berdintasuna<br>Gizarte Ongizatea<br>Emakumeen Etxea Elkartea<br>Arlo horietako eragileak eta elkarteak | • Diseinuan parte hartu duten eragileak guztira.<br>• Tailerretan parte hartu duten emakumeak guztira.<br>• Osasunaren arloan generoaren ikuspegiaren arabera lan egiten duten profesionalak guztira. |
| 1.2. | Produktu osasungarri-ekologikoen erabilera sustatzea. | ➲ Erabili eta botatzeko produktu kaltegarrien (konpresak eta tanpoiak adibidez) erabilera murrizteko kanpainak egitea.<br>➲ Emakume gazteei informazioa eta aholkularitza eskaintzea. | Ingurumena<br>Cristina Enea Fundazioa<br>Gazteria<br>Emakumeen Etxea Elkartea | • Eginiko kontsultak guztira. |

2014 2015 2016 2017 2018

AURREKONTUA
28.000 €
1.200 ordu

• Beren gorputza hobekiago ezagutzen dutela dioten parte hartzaileen kopurua.

# 2. HELBURU ZEHATZA

Osasuna arriskuan jar dezaketen praktiken aurreko prebentzioa.





## neurriak

2.1. Gazte eta nerabeen mendekotasunak eta beraiekin lotura duten indarkeria matxistaren araberako egoerak aztertzea.

## ekintzak

- Drogazaletasunen aurreko arreta eta prebentzioan lanean ari diren elkarte eta erakundeei emakumeen eta gizonen egoera ezberdinei buruzko informazioa eskaintzea.
- Giro honetako indarkeriaren gaineko prestakuntza bultzatzea.
- Eskolan, gazte mailan eta abarretan mendekotasun hauen inguruetan bideratzen diren prebentzio kanpainetan genero ikuspegia txertatzea.

- Gizarte Ongizatea
- Gazteria
- Mendekotasunen giroetako eragileak.

- Gauzaturiko ikastaroak guztira.
- Genero ikuspegia aintzat harturiko kanpainak guztira.




AURREKONTUA
23.000 €
900 ordu

- Mendekotasun arazoak dituzten emakumeen portzentajearen murriztea.

# 3. HELBURU ZEHATZA

## Emakumeen artean jarduera fisikoa eta kirolaren praktika bultzatzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 3.1. | *Emakume eta gizonen egoeraren diagnosia eta lan ildoak Donostiako kirol esparruan* diagnostikoan esku hartzeari begira eginiko proposamenen ezarpena bermatzea. | ➲ Esku hartzeari begira aintzat harturiko lerroen lantzea lehenestea.<br>➲ Berdintasunerako Planaren arabera garatuko diren ekintza planetan arlo honetako neurriak hartzea.<br>➲ Baliabide ekonomikoz hornitzea. | Kirol Patronatua<br>Berdintasuna | • Urte bakoitzeko ekintza planetan aintzat harturiko neurriak guztira. |
| 3.2. | Emakume gazteen artean, jarduera fisikoa eta kirol praktika uzteari aurrea hartzea. | ➲ Gaztelekuekin estrategien diseinua lantzea.<br>➲ Gurasoak alabek kirolean aritzeak ekar ditzakeen onuren gainean sentsibilizatzea.<br>➲ Auzoetako kirolguneen diseinuan genero ikuspegia aintzat harraraztea. | Gazteria<br>Kirol Patronatua<br>Hirigintza<br>Lanak eta Mantentzea<br>Ikasleen Guraso Elkarteak | • Kirola maiz egiten duten emakume gazteen portzentajearen hazkundea. |
| 3.3. | Emakume helduen jarduera fisiko eta kirol praktikarako aukera malguak bideratzea. | ➲ Emakumeentzako kirol jarduerak antolatzea, kontuan harturik bereziki adin txikien edo pertsona ezinduen kargu dauden emakumeak.<br>➲ Auzoetan emakume taldeen antolakuntza bultzatzea, jarduera, fisikoa garatzeko, herri lasterketetarako prestatzeko… | Kirol Patronatua<br>Emakumeen elkarteak | • Bultzaturiko ekimenak guztira. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 3.4. Emakumeen artean bizikletaren erabilera sustatzea, gutxien erabiltzen duten kolektiboen artean batez ere. | ➲ Bizikletan ibiltzen ikasteko ikastaroak antolatzea.<br>➲ Bizikletaren mekanika ikastaroak antolatzea, emakumeek emakumeentzako.<br>➲ Bizikleta ibilaldiak antolatzea. | Mugikortasuna<br>Cristina Enea Fundazioa<br>Donostiako Bizikletaren Behatokia<br>Emakumeen Etxea Elkartea<br>Kirol eragileak | • Tailerretan parte hartu duten emakumeak guztira. |
| 3.5. Emakumeek kirolen praktikan sentitzen duten segurtasun ezari aurre egiteko estrategiak diseinatzea. | ➲ Puntu Kritikoen Maparen irakurketa kirolbideen ikuspegitik egitea.<br>➲ Auzoetan emakume taldeen antolakuntza bultzatzea, jarduera, fisikoa garatzeko, herri lasterketetarako prestatzeko… | Puntu Kritikoetarako Batzordea<br>Gazteria<br>Kirol Patronatua<br>Emakumeen Etxea Elkartea<br>Kirol eragileak | • Osaturiko taldeak guztira.<br>• Hautemaniko puntu kritikoak guztira. |




AURREKONTUA
23.000 €
900 ordu

• Kirola maiz egiten duten emakumeen kopuruaren hazkundea.

# 4. HELBURU ZEHATZA

**Emakume kirolarien eta, bereziki, horien arteko profesionalen errealitatea, ahaleginak eta lorpenak ikusaraztea.**





| | neurriak | ekintzak | | |
|---|---|---|---|---|
| 4.1. | Kirolarien berdintasunaren aldeko ekimenak sustatzea, profesionalen artean batez ere. | ➲ Kirolarien eskaerak biltzea.<br>➲ Dekalogo bat lantzea, hedabideetan emakume kirolarien eta emakumez osaturiko kirol taldeen gaineko albisteak egoki trata eta bidera daitezen.<br>➲ Hedabideei helaraztea. | Berdintasuna<br>Kirol Patronatua<br>Kirol eragileak | • Helarazitako hedabideak guztira. |
| 4.2. | Emakumeen kirolaren gizarte duintzearen alde jokatzea. | ➲ Emakume kirolarien eta emakumez osaturiko kirol taldeen merezimenduak agerian uztea eta jendaurrean ezagutaraztea.<br>➲ Hedabideei eliteko emakume kirolariei eta emakume taldeei buruzko informazioa helaraztea,<br>➲ Kazetariekin berdintasuna eta kirola gaiari buruzko prestakuntza ikastaroa egitea.<br>➲ Emakume kirolariak ezagutarazteko kanpainak prestatzea. | Alkatetza<br>Argitalpen Kabinetea<br>Kirol Patronatua<br>Hedabideak.<br>Kirol eragileak | • Prentsan ageri diren emakume kirolariak eta emakumez osaturiko kirol taldeak guztira.<br>• Prestakuntzan trebatu diren kazetariak guztira, sexuaren arabera banatuak. |




AURREKONTUA
18.000 €
500 ordu

• Emakumeen kirolaren gainean argitaraturiko albisteak guztira.



## 6. Lerroa:

# EMAKUMEEN PARTE HARTZE SOZIOPOLITIKO ETA EKONOMIKOA

Elkarbizitza eraikitzeko berdintasunezkoa den eredu bat eraikitzen lagundu behar dugu, eta emakumeek espazio publikoan gizarte eta politikaren esparruetatik parte hartzea sustatu eta indartu behar dugu, funtsezko bi alderdi kontuan hartuta:

- Emakumeek pertsonen bizitzan eragina duten erabakiak hartzeko espazio eta prozesuetan –erakundeetan edo komunitatean, oro har– parte hartzeko duten eskubidea bermatzea.
- Mugimendu feminista eta emakumeen elkarte-mugimendua nahiz burutzen dituzten ekintzak indartzeko baldintzak sortzea, haien bidez frogatu baita badirela elkarrekin bizitzeko beste modu batzuk, berdintasunezkoagoak. Eta, halaber, emakumeen herritartasun-eskubideak lortzeko eta eurek bultzatuta gizartea aldatzeko orduan emakumeen lehengo eta oraingo gidaritza onartzeko modu bat baita.

*Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana 2012-2020*

Feminismoaren borrokaren eta lorpenen aitorpena eta gizarte mugimendu horrekiko lankidetza abiapuntutzat harturik, Berdintasunerako III. Planak guztiz bermatuko die emakumeei herritartasun eskubideak baliatzeko eta haien arabera jarduteko bidea, haien esku hartzea berdintasunean eta espazio soziopolitiko eta ekonomiko guztietan ziurtatuz.

### helburuak

- Emakumeen elkarte mugimenduari laguntzea.
- Praktika feministak bultzatzea.
- Parte hartze prozesu feministak indartzea.
- Udalaren erabakietan eta udal politiken jarraipenean, mugimendu feministaren eta emakumeen elkarteen ordezkarien parte hartzea bultzatzea.

### esparrua

- *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.*III. Titulua. I. Kapitulua. Esku hartze soziopolitikoa. 23. eta 24. Artikuluak.
- *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana.* I. Ardatza: Balioak Aldatzea eta emakumeak ahalduntzea. 4. Programa. Ahalduntze soziala eta politikoa laguntzea.

| helburuak | neurriak | |
|---|---|---|
| **1. Mugimendu feministarekin, emakumeen elkarteekin eta jarduera feministak bideratzen dituzten bitariko elkarteekin lan egitea.** | 1.1. | Elkarteen premiak, jarduerak, jokamoldeak… ezagutzea. |
| | 1.2. | Elkarteek baliabide eta espazioen arloan eginiko eskaerei harrera egitea. |
| | 1.3. | Hirian jardunean ari diren emakume elkarte eta elkarte feministen gaineko informazioa eguneratzea. |
| | 1.4. | Emakumeen elkarteen jardueren zabalkundean parte hartzea. |
| | 1.5. | Emakumeen elkarte ehunari oro har zuzenduriko dirulaguntzen maila hobetzea. |
| **2. Donostiako Emakumeen Etxea indartzea.** | 2.1. | Proiektuaren ibilera egokirako behar diren baliabideak ziurtatzea. |
| | 2.2. | Kogestiorako eredua indartzea, erabakiak hartzeko bidea, komunikabideak eta abar hobetuz. |
| | 2.3. | Emakumeen Etxearen proiektuaren zabalkunderako bideak hobetzea. |
| | 2.4. | Etxearen barneko proiektuen eta espazioen arteko ezagutza hobetzea. |
| | 2.5. | Etxean parte hartzen ari diren emakumeen eta elkarteen artean aniztasuna sustatzea. |
| | 2.6. | Zaurgarritasun egoera berezian dauden emakumeei begira (*sexu langileak, transexualak, migranteak, presoak, preso ohiak, ijitoak, aniztasun funtzionaldunak*) bideraturiko proiektuen eta baliabideen garapena bultzatzea. |
| | 2.7. | Beste Emakume Etxeekin sareko lana sustatzea. |
| **3. Udal prozesu parte hartzaileetan emakumeak eragile izatea bultzatzea.** | 3.1. | Emakumeen parte hartze eragilea Udaleko Aholku Batzordeetan handiagotzea, arloen arteko ikuspegi batetik. |
| | 3.2. | Emakumeen parte hartze eragilea handiagotzea Donostiako Udalak bultzaturiko beste prozesu parte hartzaile batzuetan. |
| **4. Donostiako Berdintasunaren aldeko Emakumeen Kontseilua indartzea.** | 4.1. | Donostiako Berdintasunaren aldeko Emakumeen Kontseiluan parte hartzea bultzatzea. |
| | 4.2. | III. Planaren jarraipena bultzatzea. |

| | | |
|---|---|---|
| **5. Emakumeak eta Hiria Foroa indartzea.** | 5.1. | Emakumeak eta Hiria Foroak bideraturiko jarduerak ezagutaraztea. |
| | 5.2. | Emakumeek hiriari eginiko ekarpenak berreskuratuko duten proiektuak bultzatzea. |
| | 5.3. | Generoaren araberako ikuspegia hiriaren diseinuan eta antolamenduan aintzat hartzea erraztea. |
| **6. Kontzientzia feminista gizarte, kultura eta lankidetzarako mugimenduetan bultzatzea.** | 6.1. | Bitariko elkarteetan berdintasunerako proiektuak sustatzea. |
| | 6.2. | Lankidetzarako proiektuetan berdintasuna eta feminismoak bultzatzea. |
| | 6.3. | Hiriko espazio eta ekitaldi soziokulturaletan gogoeta feminista bideratzea. |
| **7. Beste herrietako Berdintasunerako eta lankidetzarako mugimendu eta erakundeekiko sare lana bultzatzea.** | 7.1. | Lurralde horietan Berdintasunerako politiken bideratze prozesuetan lankidetza eskaintzea. |
| | 7.2. | Esperientzia, baliabide eta praktika feministen trukerako guneak sustatzea. |

# 1. HELBURU ZEHATZA

**Mugimendu feministarekin, emakumeen elkarteekin eta jarduera feministak bideratzen dituzten bitariko elkarteekin lan egitea.**

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 1.1. | Elkarteen premiak, jarduerak, jokamoldeak… ezagutzea. | ➲ Elkarteekin bisitaldiak eta bilerak egitea. | Berdintasuna<br>Auzoak eta Parte hartzea<br>Elkarteak | • Urtean eginiko bisitak guztira. |
| 1.2. | Elkarteek baliabide eta espazioen arloan eginiko eskaerei harrera egitea. | ➲ Elkarteen espazio premiak kontuan hartzea.<br>➲ Lokal publikoen eta haien erabilgarritasunaren estimazioa egitea.<br>➲ Udal espazioen erabilera xedatzea elkarteen eskaeren aurrean. | Berdintasuna<br>Hezkuntza eta Gizarte Sustapena | • Elkarteen erabilerarako utzi diren lokalak guztira. |
| 1.3. | Hirian jardunean ari diren emakume elkarte eta elkarte feministen gaineko informazioa eguneratzea. | ➲ Informazio eguneratua bermatuko duen prozedura diseinatzea. | Berdintasuna | • Informazio eguneratua duten elkarteen portzentajea. |
| 1.4. | Emakumeen elkarteen jardueren zabalkundean parte hartzea. | ➲ Berdintasunerako webaren bitartez Elkarteek programaturiko jardueren berri ematea. | Berdintasuna<br>Donostia Kultura<br>Elkarteak | • Ezagutarazitako jarduera eta ekitaldien batez bestekoa hilean.<br>• Informaziorako lekua eskaini zaien elkarteen portzentajea. |
| 1.5. | Emakumeen elkarte ehunari oro har zuzenduriko dirulaguntzen maila hobetzea. | ➲ Egungo oinarriak aztertzea.<br>➲ Elkarteen premiak aztertzea.<br>➲ Hobekuntzarako proposamenak egitea, deialdi bakoitzean kontuan har daitezen. | Berdintasuna<br>Donostia Kultura<br>Elkarteak | • Dirulaguntzarako onarturiko eskaeren portzentajea.<br>• Deialdian dirulaguntza jaso duten Elkarteen portzentajea.<br>• Berdintasunerako elkarlanean ari diren elkarte feminista, emakume elkarte eta bitariko elkarteen portzentajea. |




AURREKONTUA
66.000 €
1.300 ordu

## 2. HELBURU ZEHATZA

Donostiako Emakumeen Etxea indartzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 2.1. | Proiektuaren ibilera egokirako behar diren baliabideak ziurtatzea. | ➲ Egoitzaren bizigarritasun eta erabilera baldintzak hobetzea.<br>➲ Elkartearen eta Emakumeen Etxeko Berdintasun Bulegoaren hornikuntza ekonomikoa handiagotzea.<br>➲ Udal langile gehiago Emakumeen Etxean. | ■ Emakumeen Etxea Elkartea<br>■ Etxean parte hartzen duten Elkarteak.<br>■ Berdintasuna | • Berdintasun Bulegoari egiten zaion hornikuntza ekonomikoa.<br>• Elkarteari egiten zaion hornikuntza ekonomikoa.<br>• Udal langile kopurua Etxean.<br>• Erabiltzaileen Etxeko espazio fisikoarekiko gogobetetze maila |
| 2.2. | Kogestiorako eredua indartzea, erabakiak hartzeko bidea, komunikabideak eta abar hobetuz. | ➲ Emakumeen Etxearen gaineko Gogoeta Estrategikorako prozeduran parte hartzea eta laguntzea.<br>➲ Datuen bilketa sistematizatzea, Emakumeen Etxeko jarduera jarraitzeko eta ebaluatzeko.<br>➲ Urtean ebaluaziorako topaketa egitea.<br>➲ Hobekuntzarako lerroak identifikatzea. | ■ Emakumeen Etxea Elkartea<br>■ Etxean parte hartzen duten Elkarteak.<br>■ Berdintasuna | • Identifikatutako hobekuntza lerroak guztira.<br>• Jarraipen eta ebaluaziorako adierazleak guztira.<br>• Gogoeta estrategikorako prozeduran parte hartu dutenen gogobetetze maila. |
| 2.3. | Emakumeen Etxearen proiektuaren zabalkunderako bideak hobetzea. | ➲ Urteko memoria egitea.<br>➲ Zabalkunderako bideak, erabilitako tresnak… aintzat hartzea.<br>➲ Zabalkunde ekintzak etengabe egitea. | ■ Emakumeen Etxea Elkartea<br>■ Etxean parte hartzen duten Elkarteak.<br>■ Berdintasuna | • Urteko Memoria.<br>• Emakumeen Etxearen orrialdera eginiko bisitak guztira.<br>• Erabilitako bideak guztira. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 2.4. Etxearen barneko proiektuen eta espazioen arteko ezagutza hobetzea. | ➲ Sukaldegunean parte hartzea.<br>➲ Datu basean Etxean ekitaldiak antolatu dituzten elkarte guztiak jasotzea. | ■ Emakumeen Etxea Elkartea<br>■ Etxean parte hartzen duten Elkarteak.<br>■ Berdintasuna | • Bideraturiko saioak guztira.<br>• Identifikatutako lankidetza lerroak guztira. |
| 2.5. Etxean parte hartzen ari diren emakumeen eta elkarteen artean aniztasuna sustatzea. | ➲ Elkarte berriak eta emakumeak Etxera gonbidatzea, parte hartze maila txikikoak batez ere. | ■ Emakumeen Etxea Elkartea<br>■ Etxean parte hartzen duten Elkarteak.<br>■ Berdintasuna | • Bazkide kopuruaren hazkundea.<br>• Esku hartzen duten elkarteen kopuruaren hazkundea. |
| 2.6. Zaurgarritasun egoera berezian dauden emakumeei begira (*sexu langileak, transexualak, migranteak, presoak, preso ohiak, ijitoak, aniztasun funtzionaldunak*) bideraturiko proiektuen eta baliabideen garapena bultzatzea. | ➲ Taldeak hautematea.<br>➲ Esku hartzeak lehenestea.<br>➲ Baliabideak eta arloak, erakunde esku hartzaileak, zehaztea. | ■ Emakumeen Etxea Elkartea<br>■ Arlo hauetan lanean ari diren elkarteak.<br>■ Berdintasuna<br>■ Gizarte Ongizatea<br>■ Kultura Aniztasuna | • Bultzaturiko proiektuak guztira. |
| 2.7. Beste Emakume Etxeekin sareko lana sustatzea. | ➲ Hurbil daudelako, haien ibilbidea dela-eta, edota beste arrazoi batzuengatik interesgarrienak direnak bereiztea.<br>➲ Haiei bisita egitea edo etortzeko gonbidatzea.<br>➲ Elkarlanerako proposamenak egitea. | ■ Emakumeen Etxea Elkartea<br>■ Etxean parte hartzen duten Elkarteak.<br>■ Berdintasuna | • Elkarlanean ari diren Emakume Etxeak.<br>• Garaturiko lankidetza proiektuak guztira. |

2014 2015 2016 2017 2018

AURREKONTUA
79.000 €
2.000 ordu

• Bazkideen Emakumeen Etxearekiko gogobetetze maila.
• Emakumeen Etxeko bazkideak guztira.
• Etxean urtean antolaturiko ekitaldiak batez beste.

# 3. HELBURU ZEHATZA

## Udal prozesu parte hartzaileetan emakumeak eragile izatea bultzatzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 3.1. | Emakumeen esku hartze eragilea Udaleko Aholku Batzordeetan handiagotzea, arloen arteko ikuspegi batetik. | ➲ Aholku Batzorde bakoitzaren errealitatea aztertzea.<br>➲ Ondorioak ateratzea eta hobekuntzarako lerroak lantzea.<br>➲ Ahalduntzerako tailerrak antolatzea.<br>➲ Batzordeak eta parte hartzeko prozesuak biziarazten dituzten pertsonak sentsibilizatzea, emakume eta gizonen parte hartzea egiaz berdintasunean oinarritua izan dadin: hitza hartzeak, pertsona adituak …<br>➲ Batzorde berrien sorrera prozesuaren hasieran, eta haien arautegia berrikusi behar den aldi orotan, emakumeen parte hartze eraginkorra helburutzat hartzea. | Zuzenean loturiko arloak<br>Auzoak eta Parte hartzea<br>Zuzenean loturiko elkarteak. | • Hautemaniko hobekuntza lerroak guztira. |
| 3.2. | Emakumeen parte hartze eragilea handiagotzea Donostiako Udalak bultzaturiko beste prozesu parte hartzaile batzuetan. | ➲ Parte hartzeko prozesuen diseinu fasetik beretik emakumeen eta gizonen esku hartzea berdintasunean gertatzea zaintzen duten irizpideak kontuan hartzea. | Auzoak eta Parte hartzea<br>Zuzenean loturiko arloak | • Emakume eta gizon esku hartzaileak guztira. |




AURREKONTUA
29.000 €
700 ordu

- Emakumeen portzentajea Aholku Batzordeetan.
- Emakumeen esku hartzeen hazkundea Batzordeetan (Auditoria).

# 4. HELBURU ZEHATZA

## Donostiako Berdintasunaren aldeko Emakumeen Kontseilua indartzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 4.1. | Donostiako Berdintasunaren aldeko Emakumeen Kontseiluan parte hartzea bultzatzea. | ➲ Gogoeta prozesu bati ekitea Kontseiluko ohiko eta balizko kide guztien artean.<br>➲ Kontseiluaren eboluzioa aztertzea, kideen partaidetza eta ordezkaritzari dagokionez.<br>➲ Kide berrien proposamenak jasotzea eta aintzat hartzea.<br>➲ Jarduteko modua hobetzeko proposamenak jasotzea eta aintzat hartzea.<br>➲ Kontseiluaren araudia berrikustea eta onartzea | Berdintasuna<br>Auzoak eta Parte hartzea<br>Emakumeen Kontseilua<br>Emakumeen elkarteak | • Hazkundea esku hartzaileen kopuruan.<br>• Hazkundea parte hartzen duten talde feministetan eta emakume taldeetan. |
| 4.2. | III. Planaren jarraipena bultzatzea. | ➲ Kontseiluaren III. Planaren jarraipen sisteman parte hartzea planifikatzea. | Berdintasuna<br>Auzoak eta Parte hartzea<br>Emakumeen Kontseilua | • Jarraipen bilerak guztira.<br>• Planari hobekuntzari begira aurkeztu zaizkion proposamenak. |




AURREKONTUA
21.000 €
1.200 ordu

- Parte hartzen duten talde feministen eta emakume taldeen portzentajea.
- Kideen Kontseiluarekiko gogobetetze maila.

# 5. HELBURU ZEHATZA

Emakumeak eta Hiria Foroa indartzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 5.1. | Emakumeak eta Hiria Foroak bideraturiko jarduerak ezagutaraztea. | ➲ Emakumeak eta Hiria Foroak bideraturiko jarduera guztiak jasotzea.<br>➲ Publiko objektiboa hautatzea.<br>➲ Komunikabideak publiko objektiboaren arabera aintzat hartzea. | ■ Berdintasuna<br>■ Emakumea eta Hiria Foroa | • Ezagutarazitako ekitaldiak guztira. |
| 5.2. | Emakumeek hiriari eginiko ekarpenak berreskuratuko duten proiektuak bultzatzea. | ➲ Emakume historiagile eta artistekin lan-talde bat osatzea, emakumeek hiriari eginiko ekarpenak ikusarazteko proposamen berriak lantzeko.<br>➲ "Aztarna Feministen Mapa" lantzea. | ■ Emakumea eta Hiria Foroa<br>■ Berdintasuna<br>■ Hirigintza<br>■ Donostia Kultura | • Bultzaturiko proiektuak guztira. |
| 5.3. | Generoaren araberako ikuspegia hiriaren diseinuan eta antolamenduan aintzat hartzea erraztea. | ➲ Hirigintza proiektu berrien diseinuan ekarpenak egitea.<br>➲ Proposamen hoberenak aintzat hartzearen alde jokatzea.<br>➲ Hirigintza planen garapenean parte hartzen duten departamentuen eta Emakumeak eta Hiria Foroaren artean elkarrizketa bultzatzea. | ■ Hirigintza<br>■ Emakumea eta Hiria Foroa | • Bultzaturiko proiektuak guztira.<br>• Proposamen onenak jaso dituzten proiektuak guztira |




AURREKONTUA
21.000 €
800 ordu

- Kideak guztira.
- Landuriko hirigintza diseinu eta antolamendu proiektuen portzentajea.
- Kideen Emakumeak eta Hiria Foroarekiko gogobetetze maila.

# 6. HELBURU ZEHATZA

Kontzientzia feminista gizarte, kultura eta lankidetzarako mugimenduetan bultzatzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 6.1. | Bitariko elkarteetan berdintasunerako proiektuak sustatzea. | ➲ Bitariko elkarte eta antolamenduetan berdintasunerako prestakuntza eskaintzea.<br>➲ Dirulaguntzetan berdintasunerako klausulak sarraraztea. | ■ Zuzenean loturiko arloak<br>■ Auzoak eta Parte hartzea | • Bitariko elkarteek berdintasunerako bultzaturiko proiektuak guztira. |
| 6.2. | Lankidetzarako proiektuetan berdintasuna eta feminismoak bultzatzea. | ➲ GGKEei berdintasunean prestakuntza eskaintzea.<br>➲ Berdintasunaren aldeko esperientzien trukerako espazioak antolatzea.<br>➲ Dirulaguntzetan berdintasunerako klausulak sarraraztea. | ■ Lankidetza<br>■ Berdintasuna | • Genero ikuspegia duten lankidetza proiektuak guztira.<br>• Elkartrukaturiko praktika onak guztira. |
| 6.3. | Hiriko espazio eta ekitaldi soziokulturaletan gogoeta feminista bideratzea. | ➲ Espazio hauetara bidera litezkeen gaiak hautematea.<br>➲ Esku hartuko duten pertsonen artean feministak kontuan hartzea. | ■ Donostia Kultura<br>■ Euskara<br>■ Kultura Aniztasuna<br>■ Giza Eskubideak<br>■ Cristina Enea Fundazioa<br>■ Tabakalera<br>■ Donostia 2016<br>■ Berdintasuna | • Gogoeta feminista bideratu duten espazioak eta ekitaldiak guztira. |




AURREKONTUA
26.000 €
500 ordu

- Berdintasunaren aldeko neurriak edo berezko Berdintasunanerako Planak dituzten elkarteen portzentajea.
- Berdintasunaren aldeko neurriak edo berezko Berdintasunarerako Planak dituzten GGKEen portzentajea.

# 7. HELBURU ZEHATZA

Beste herrietako Berdintasunerako eta lankidetzarako mugimendu eta erakundeekiko sare lana bultzatzea.





| neurriak | | ekintzak | | |
|---|---|---|---|---|
| 7.1. | Lurralde horietan Berdintasunerako politiken bideratze prozesuetan lankidetza eskaintzea. | ➲ Esperientzi interesgarrien hautematea eta ezagutaraztea. | Lankidetza<br>Berdintasuna<br>Euskal Fondoa | • Lankidetzak guztira. |
| 7.2. | Esperientzia, baliabide eta praktika feministen trukerako guneak sustatzea. | ➲ Beste herri batzuetako talde feministekin lan egitea.<br>➲ Beste herri batzuetako talde feministen sentsibilizazio kanpainak ezagutaraztea. | Lankidetza<br>Berdintasuna<br>Mugimendu feminista | • Ekitaldiak guztira. |




AURREKONTUA
21.000 €
500 ordu

• Elkarlanean ari diren erbesteko Berdintasunaren aldeko eta lankidetzarako mugimenduak eta erakundeak guztira.

## 7. Lerroa:

# AUTONOMIA ETA NORBERAREN BOTEREA



Gizarte prozesuek emakumeen autonomia ukatzen dute. Hezi garen gizarteak besteekin bat egiteko duten gaitasuna hartzen du bereziki aintzat emakumeengan. Autonomia gabezi horren adibideak ditugu, besteak beste, pobreziaren feminizazioa, emakumeen aurkako indarkeria eta, oro har, emakumeen eskubide eza. Egoera hori konpondu ahal izateko, kultura eraldatuko duen prozesu bati ekin behar diogu ezinbestez. Ez dago autonomia ekonomikoaz hitz egiterik, kultura autonomiarik gabe. Sexu autonomia bera ere ikusi beharra dago kultura aldaketa horren aldetik.

Genero demokrazia deitu den horren erdian kokatu du feminismoak emakumeen autonomia. Ezinbestekoa da pertsona, talde edo erakunde batek bere buruaren jabetzat, autonomotzat, definitzea, baina ez da hori aski. Gizartean halakotzat hartua izan behar du inolaz ere. Bitarteko operatiboak ditu ezinbesteko jardun ahal izateko. Gizarte ituna behar du izan honek guztiak, izango bada.

> “Emakumeak pertsona eta genero gisa bestelakotzen dituzten gatibutasunen irteeran eta guztizko ezabatzearen bidean ezartzen gaituen bitarteko eraginkorra eta sendoa da ahalduntzea”. “Ahalduntze esaten diogu emakume bakoitzari, pixkanaka-pixkanaka eta zenbaitetan urrats handiak eginez, historia, politika eta kulturaren objektu izateari, besteren objektu izateari, hau da, besterentzat-izateari utzi eta bere bizitzako subjektu izateko, beretzat-izateko, historia, kultura, politika eta gizarte bizitzako protagonista izateko, aukera ematen dion eraldatze prozesuari”.
>
> Marcela Lagarde

### helburuak

- Emakume guztiei eskubide osoko herritar bilakatzeko behar dituzten baliabidetarako bidea bermatzea.
- Emakumeen garapen osoa oztopatzen dituzten gizarte teoriak berrikusteko aukera emango duen kultura aldaketa bultzatzea.
- Emakumeen lan eta prestakuntzarako sarbideak eta baldintzak hobetzea.

### esparrua

- ☐ *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.*III. Titulua. IV. Kapitulua 2. Atala –Enplegua– eta V. Kapitulua –Beste oinarrizko gizarte eskubide batzuk–
- ☐ *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana. I. Ardatza: Balioak Aldatzea eta emakumeak ahalduntzea. 2. Programa. Ahalduntze pertsonala laguntzea.*

| helburuak | neurriak |
|---|---|
| **1. Herritarrak Berdintasunaren alde eta egungo desberdintasunen eta emakumeei dagozkien estigmen aurka jokatu beharraren aurrean sentsibilizatzea** | 1.1. Nazioarteko Egunetako Kanpainak bideratzea. |
| | 1.2. Sentsibilizazio kanpainak beste arlo batzuekin egitea, arloen arteko lanaren ikuspegia aintzat harturik. |
| **2. Norberaren garapena genero rol eta estereotiporik gabe bultzatuko duen hezkuntza bermatzea.** | 2.1. Haurtxoko eta gaztelekuetan hezkidetzan oinarrituriko planak garatzea. |
| | 2.2. Ikasleen Gurasoen Elkarteak hezkidetzaren aurrean sentsibilizatzea. |
| | 2.3. Hezkuntzaren arloko erakundeekin hezkidetzarako lan koordinatua bultzatzea. |
| **3. Gazteen lanbiderako orientazioa hobetzea.** | 3.1. Generoaren ukirik gabeko lanbide orientazioa bultzatzea. |
| **4. Gizarte talde kaltetuetako emakumeei zuzentzen zaizkien gizarte baliabideak aintzat hartzerakoan genero ikuspegia aintzat hartuko dela bermatzea.** | 4.1. Gizarte baliabideen azterketa generoaren ikuspegitik. |
| **5. Gizarte talde kaltetuetako emakumeen kalitatezko enplegurako sarrera hobetzea.** | 5.1. Gizarte Zerbitzuetan ari diren pertsonen Berdintasunerako prestakuntza hobetzea. |
| | 5.2. Berdintasunerako prestakuntzarako sarrera bermatzea. |
| | 5.3. Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten emakumeen kontratazioan genero estereotipoen ezabatzea bultzatzea. |
| | 5.4. Tradizioaren arabera, gizonentzat hartu izan diren lanbideetan prestaturiko emakumeekiko harremanak erraztea. |
| **6. Emakumeen ekintzailetza bultzatzea.** | 6.1. Emakumeen enpresak sortzeko proiektuen eta prozesuen kalitatea hobetzea. |
| | 6.2. Emakume ekintzaileen esperientziak ezagutaraztea. |
| **7. Emakumeen egoera hobetzea enpresetan.** | 7.1. Berdintasunerako aginduen eta enpresa barruan berdintasunaren kudeaketarako erabakien betetzea bultzatzea. |
| | 7.2. Parte hartze prozesuetan eta erabakiak hartzeko uneetan emakumeen presentzia bultzatzea. |
| | 7.3. Udalaren mendean dauden Administrazio Kontseiluetan emakumeen presentzia bultzatzea. |
| | 7.4. Enpresen esparruko erabaki postuetan emakumeen parte hartzea bultzatzea. |
| **8. Iraunkortasunaren aldeko kontsumo eredu berriak sustatzea.** | 8.1. Egungo ekoizpen, erreprodukzio eta kontsumo ereduak zalantzan jartzea. |
| | 8.2. Trukerako ekimenen garapena bultzatzea. |
| | 8.3. Hiriko baratzetan emakumeen parte hartzea bultzatzea. |
| | 8.4. Donostialdeko emakume baserritarren sarearen sorrera bultzatzea. |

# 1. HELBURU ZEHATZA

**Herritarrak Berdintasunaren alde eta egungo desberdintasunen eta emakumeei dagozkien estigmen aurka jokatu beharraren aurrean sentsibilizatzea**

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 1.1. | Nazioarteko Egunetako Kanpainak bideratzea. | ➲ Nazioarteko Egunetako sentsibilizazio kanpainak lan parte hartzailean oinarriturik prestatzea.<br>➲ Kanpainen eragina neurtzeko erak identifikatzea. | ■ Berdintasuna<br>■ Donostiako Berdintasunaren aldeko Emakumeen Kontseilua.<br>■ Koordinakunde Feminista | • Bururaturiko kanpainak guztira.<br>• Kanpainen eragina. Agerpenak hedabideetan. Parte hartzaileen kopurua sare sozialetako kanpainetan. |
| 1.2. | Sentsibilizazio kanpainak beste arlo batzuekin egitea, arloen arteko lanaren ikuspegia aintzat harturik. | ➲ Udal arloetatik bultzatzen diren sentsibilizazio kanpainetako gaiak aztertzea.<br>➲ Batera bultza litezkeen gaiak hautematea.<br>➲ Kanpainak diseinatzea. | ■ Lankidetza<br>■ Giza Eskubideak<br>■ Euskara<br>■ Gazteria<br>■ Cristina Enea Fundazioa<br>■ Ingurumena<br>■ Kultura Aniztasuna<br>■ Auzoak eta Parte hartzea<br>■ Gizarte Ongizatea<br>■ Berdintasuna | • Lankidetzan eginiko kanpainak guztira.<br>• Zuzenean loturiko arloak |




AURREKONTUA
32.000 €
1.600 ordu

- Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren aurrean esku hartzea beharrezkoa dela pentsatzen duten herritarren portzentajea. Inkesta.
- Ekitaldi publikoetan parte hartzen duten emakumeen eta gizonen portzentajea.

## 2. HELBURU ZEHATZA

Norberaren garapena genero rol eta estereotiporik gabe bultzatuko duen hezkuntza bermatzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 2.1. | Haurtxoko eta gaztelekuetan hezkidetzan oinarrituriko planak garatzea. | ➲ Lan tailerrak egitea, hezkidetza bideratu beharreko ekintzen diseinu eta programaziotik aintzat hartzeko. | ■ Gazteria<br>■ Donostia Kultura | • Hezkidetzarako harturiko neurriak batez beste. |
| 2.2. | Ikasleen Gurasoen Elkarteak hezkidetzaren aurrean sentsibilizatzea. | ➲ Informazio interesgarria zabaltzea: ikastaroak, materialak…<br>➲ Dirulaguntzetan hezkidetza tailerrak egiteko lerro bat aintzat hartzea. | ■ Hezkuntza<br>■ Ikasleen Guraso Elkarteak<br>■ Baikara<br>■ Hezkuntzako Sindikatuak | • Bideraturiko esku hartzeak guztira.<br>• Esku hartzen duten elkarteak guztira. |
| 2.3. | Hezkuntzaren arloko erakundeekin hezkidetzarako lan koordinatua bultzatzea. | ➲ Programa edo protokolo batzuetan batera jarduteko aukera aintzat hartzea. | ■ Berdintasuna<br>■ Hezkuntza<br>■ Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila<br>■ Haurreskolen Partzuergoa | • Parte hartutako programak guztira. |




AURREKONTUA
18.000 €
1.000 ordu

• Hirian hezkidetzarako programak bultzatzen dituzten ikastetxeak guztira.

# 3. HELBURU ZEHATZA

**Gazteen lanbiderako orientazioa hobetzea.**

## neurriak

3.1. Generoaren ukirik gabeko lanbide orientazioa bultzatzea.

## ekintzak

- Neskei zuzenduriko ahalduntze tailerrak antolatzea.
- Ikasketa ez estereotipatuetan ari diren neskak eta mutilak beren esperientzia konta dezaten gonbidatzea.
- Sentsibilizazio kanpainak familien artean.
- Hezkidetzarako programetan esku hartzea.



- Gazteria
- Gaztelekuak
- Sustapena



- Tailer eta saioetan parte hartu duten neska eta mutilak guztira.
- Ikasketak aukeratzerakoan sexuen banaketan eginiko hobekuntza.




AURREKONTUA
12.000 €
600 ordu

# 4. HELBURU ZEHATZA

Gizarte talde kaltetuetako emakumeei zuzentzen zaizkien gizarte baliabideak aintzat hartzerakoan genero ikuspegia aintzat hartuko dela bermatzea.





## neurriak

4.1. Gizarte baliabideen azterketa generoaren ikuspegitik:

- *emakume preso ohiak*
- *amak osaturiko familiak*
- *indarkeria matxista pairatu duten emakumeak.*
- *arazo psikologikoak edo gogo eritasunak dituzten emakumeak.*
- *adikzioak gainditzen ari diren emakumeak.*
- *bizilekurik gabeko emakumeak.*
- *aniztasun funtzionala duten emakumeak.*
- *sexu langileak.*
- transexualak.
- ...

## ekintzak

- Puntu kritikoak eta gabeziak identifikatzea.
- Hobekuntzarako proposamena.

- Gizarte Ongizatea
- Arlo hauetan lanean ari diren beste gizarte eragile eta erakunde batzuk.

- Hautemaniko hobekuntzak guztira.




AURREKONTUA
25.000 €
1.300 ordu

- Gizarte talde kaltetuetako emakumeei generoaren araberako ikuspegiaz eskaintzen zaizkien gizarte baliabideen portzentajeak.

# 5. HELBURU ZEHATZA

## Gizarte talde kaltetuetako emakumeen kalitatezko enplegurako sarrera hobetzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 5.1. | Gizarte Zerbitzuetan ari diren pertsonen Berdintasunerako prestakuntza hobetzea. | ➲ Prestakuntzarako Plana diseinatzea.<br>➲ Generoaren araberako ikuspegiaz lantzen diren kasuen azterketarako lan saioak antolatzea.<br>➲ Lan saioetan hautemaniko pautak dokumentu batean jasotzea. | Gizarte Ongizatea<br>Sustapena<br>Berdintasuna<br>Giza Baliabideak<br>Kontrataturiko enpresak | • Antolaturiko lan saioak guztira.<br>• Udalaren gizarte zerbitzuetan berdintasunean prestatuak diren langileen portzentajea. |
| 5.2. | Berdintasunerako prestakuntzarako sarrera bermatzea. | ➲ Emakumeek zein prestakuntza motatan duten sarrera zailen zehaztea eta egoera horren arrazoiak aztertzea.<br>➲ Hobekuntzarako proposamena.<br>➲ Lan Merkaturako sarrerari begira antolaturiko tailerretan berdintasunerako moduluak ematea. | Sustapena<br>Gizarte Ongizatea | • Emakumeen portzentajea jasoriko prestakuntzaren arabera. |
| 5.3. | Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten emakumeen kontratazioan genero estereotipoen ezabatzea bultzatzea. | ➲ Kontratazioan parte hartzen duten gizarte eragileekiko gogoeta espazio bat sortzea.<br>➲ Hobekuntzarako proposamenak.<br>➲ Kontratazioaren arloko dirulaguntzetan eta laguntzetan, berdintasunaren aldeko klausulak bideratzea. | Gizarte Ongizatea<br>Sustapena<br>Berdintasuna<br>Zuzenean loturiko arloak<br>Enpresa kontratatzaileak | • Tradizioz gizonek eginiko lanetan kontrataturiko emakumeen portzentajea. |
| 5.4. | Tradizioaren arabera gizonentzat hartu izan diren lanbideetan prestaturiko emakumeekiko harremanak erraztea. | ➲ Lanbideen araberako zerrenda bat osatzea.<br>➲ Zerrenda eragile eta enpresa kontratatzaileen artean banatzea. | Sustapena<br>Zuzenean loturiko gizarte eragileak eta erakundeak | • Landuriko zerrenda.<br>• Igorri zaien erakundeak guztira. |




AURREKONTUA
25.000 €
1.300 ordu

- Babesturiko enplegutik lan merkatura igaro diren emakumeen portzentajea.

# 6. HELBURU ZEHATZA

Emakumeen ekintzailetza bultzatzea.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 6.1. | Emakumeen enpresak sortzeko proiektuen eta prozesuen kalitatea hobetzea. | ➲ Balizko ekintzaileen premiak zehaztea.<br>➲ Ahalduntzerako tailerrak antolatzea, kalitatezko ekintzailetza sustatzeko.<br>➲ Emakume ekintzaileen sareekin lan egitea.<br>➲ Jubilatuekin mentoring-ak antolatzeko aukera. | Sustapena<br>Gizarte Ongizatea | • Emakumeen enpresaritzeko proiektuen iraupen maila. |
| 6.2. | Emakume ekintzaileen esperientziak ezagutaraztea. | ➲ Topalekuak antolatzea.<br>➲ Hedabideekiko lana, emakume enpresarien historiak argitaratzeko. | Sustapena<br>Ikastetxeak<br>Emakumeen Etxea Elkartea | • Zabalduriko esperientziak guztira. |

2014 2015 2016 2017 2018

AURREKONTUA
7.000 €
300 ordu

• Enpresaritze tasa, sexuaren arabera banatua.

# 7. HELBURU ZEHATZA

Emakumeen egoera hobetzea enpresetan.

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 7.1. | Berdintasunerako aginduen eta enpresa barruan berdintasunaren kudeaketarako erabakien betetzea bultzatzea. | ➲ Eragile sozioekonomikoekin lankidetza espazioak sortzea.<br>➲ Udalak sexismoaren prebentzioari begira landuriko protokoloa ezagutaraztea.<br>➲ Eragile sozioekonomikoei informazio interesgarria ematea (dirulaguntzak, gidak…), beren euskarri informatikoetan ere eskain dezaten. | Sustapena<br>Berdintasuna<br>Berdintasunaren aldeko Planerako barne batzordea<br>Hiriko eragile sozioekonomikoak | • Berdintasunerako Plana duten enpresak guztira. |
| 7.2. | Parte hartze prozesuetan eta erabakiak hartzeko uneetan emakumeen presentzia bultzatzea. | ➲ Erakunde sindikalekin lan saioak bururatzea, emakumeek beren erabaki organoetan hobeki jarduten lagunduko dieten estrategiak diseinatzeko. | Sustapena<br>Erakunde sindikalak | • Sindikatu parte hartzaileak guztira. |
| 7.3. | Udalaren mendean dauden Administrazio Kontseiluetan emakumeen presentzia bultzatzea. | ➲ Administrazio Kontseilu bakoitzaren errealitatea aztertzea.<br>➲ Ondorioak ateratzea eta hobekuntzarako lerroak lantzea.<br>➲ Esku hartzeko neurriak onartzea. | Auzoak eta Parte hartzea<br>Gobernu Batzordea<br>Batzorde Politikoa | • Hobekuntzarako proposaturiko lerroak guztira. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 7.4. | Enpresen esparruko erabaki postuetan emakumeen parte hartzea bultzatzea. | ➲ Zuzendaritzen eta aukerak eta interesa dituzten emakumeen arteko harremanak bultzatzea.<br>➲ Enpresetako emakumeak zuzendaritza estilo berrien arabera prestatzea.<br>➲ Emakumeek bultzaturiko beste zuzendaritza molde batzuk ikusaraztea.<br>➲ Negozio eskolak eredu hauen zabalkundean sarraraztea. | Sustapena<br>Berdintasuna<br>Hiriko eragile sozioekonomikoak | • Topaketa eta ikastaroetan parte hartu duten emakumeak guztira. |




AURREKONTUA
7.000 €
300 ordu

• Emakumeen lan baldintzen adierazleen hobekuntza: kontratu mota, lanaldi mota…

# 8. HELBURU ZEHATZA

**Iraunkortasunaren aldeko kontsumo eredu berriak sustatzea.**

| | neurriak | ekintzak |  |  |
|---|---|---|---|---|
| 8.1. | Egungo ekoizpen, erreprodukzio eta kontsumo ereduak zalantzan jartzea. | ➲ Ekofeminismoak esku hartzeko proposaturiko lerroen gaineko gogoeta zabaltzea.<br>➲ Arlo honetan lanean ari diren herritar ekimenetan parte hartzea. | Ingurumena<br>Cristina Enea Fundazioa<br>Lankidetza<br>Berdintasuna<br>Gizarte eragileak | • Identifikaturiko esku hartze lerroak guztira. |
| 8.2. | Trukerako ekimenen garapena bultzatzea. | ➲ Donostiako kontsumo ohituren genero irakurketa egitea.<br>➲ Kontsumo Iraunkorrerako Mapetan zaintzekin loturiko ekimenak hautematea. | Sustapena<br>Lankidetza<br>Cristina Enea Fundazioa<br>Emakumeen Etxea Elkartea<br>Gizarte Ongizatea | • Identifikaturiko ekimenak guztira. |
| 8.3. | Hiriko baratzetan emakumeen parte hartzea bultzatzea. | ➲ Pertsona onuradunak sexuaren arabera aztertzea.<br>➲ Ekintza positiboak aintzat hartzeko premia aztertzea. | Ingurumena | • Emakumeen portzentajea, pertsona onuradunen artean |
| 8.4. | Donostialdeko emakume baserritarren sarearen sorrera bultzatzea. | ➲ Gizarte eragileak hautematea.<br>➲ Lurralde edo erkidego mailan dauden ekimenak ezagutzea.<br>➲ Emakume baserritarrekin harremanetan jartzea.<br>➲ Lan bilera batera deitzea. | Ingurumena<br>Sustapena<br>Berdintasuna<br>Nekazarien sindikatuak | • Parte hartu duten emakume baserritarren portzentajea |




AURREKONTUA
7.000 €
300 ordu

• Baliabide iraunkorrak erabiltzen dituzten emakumeak eta gizonak guztira.

# 8. KOMUNIKAZIO PLANA

## EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA ETA HAREN EZARPENA EZAGUTARAZTEKO NEURRIAK



### HASIERAKO KOMUNIKAZIOA

Emakumeen eta Gizonezkoen Berdintasunerako III. Plana onartu eta gero, barne eta kanpo mailan ezagutaraziko zaie honako hauei:

- Udal langile guztiei:
  - Ohar berriemaile bana igorriko zaie langile guztiei, Planaren ezaugarri nagusiak laburrean azalduz eta dokumentua osorik eskuratu ahal izango duten estekaren berri emanez.
  - Bilera berriemailea udal arlo guztietan.
- Herritarrei: Komunikazio Kanpaina.
- Talde feminista eta emakumeen elkarteei:
  - Bilera batera deituko zaio Berdintasunaren aldeko Donostiako Emakumeen Kontseiluari eta Emakumeak eta Hiria Foroari, III. Plana aurkezteko. Mugimendu feminista eta emakumeen elkarte guztiei ere luzatuko zaie gonbidapena.
  - Lan saio batean aurkeztuko zaio III. Plana Emakumeen Etxea Elkarteari.

### KOMUNIKAZIOA PLANAREN INDARRALDIAREN BITARTEAN

- Barne mailan:
  - Lau hilean behin, informazio ohar bana igorriko zaie langile guztiei ondoko lauhilekoan berdintasunaren arloan izango diren aginduak edo hitzorduak oroitarazteko.
  - Urtero hautatuko dira udal arloek Planaren esparruan garaturiko hiru praktika on, haien berri langile guztiei emateko.
- Kanpo mailan:
  - Etengabe eguneratuko da Berdintasun Bulegoaren weba.
  - Berdintasunaren aldeko Donostiako Emakumeen Kontseiluaren bileretan, III. Planaren jarraipenari buruzko informazioa eskainiko da.
  - Urtero argitaratuko da, eta hedabideei helarazi, urte horretan Planaren arabera garaturiko neurriei buruzko informazio txostena.

### III. PLANAREN BUKAERAKO KOMUNIKAZIOA

Berdintasunerako III. Plana guztiz garatu ondoren, ebaluazioan lorturiko emaitzen gaineko informazioa zabalduko da barne eta kanpo mailan.

# 9. EZARPENA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN

## URTEKO PROGRAMAZIOAK

- Plana indarrean egongo den urte bakoitzean zehar, urteko jardunetarako planak edo programazioak prestatuko dira, aintzat hartu beharreko helburuak, neurriak eta ekintzak zehaztu ahal izateko. Berdintasun Bulegoaren eta Berdintasunerako Bitartekarien edo arloen arteko taldeen artean adostuko dira programazio horiek.

## JARRAIPENA

- Euskarri informatikoan diseinatuko da, pertsona bitartekariek aintzat harturiko adierazleak eta beste datu interesgarri batzuk (zailtasunak, hautemaniko premia berriak…) errazago jaso eta bildu ahal izan ditzaten.
- Berdintasun Bulegoak eta bitartekariek osatuko dute jarraipenerako tresna hori, Plan honetan jaso diren neurriak garatuz eta gauzatuz joan diren bitartean.
- **Berdintasun Bulegoak** koordinatuko du Berdintasunerako III. Planaren ezarpenaren jarraipena, eta honako bitarteko hauek baliatuko ditu horretarako: jarraipenerako tresna, Planaren ebaluaziorako eta haren ezarpena bultzatzeko lau hilean behin egingo diren lan saioak, udal arloetako berdintasunerako bitartekariekiko harreman etengabea, sei hilean behin bilera arloen arteko koordinazioari begira zehazturiko bi egiturekin, hau da, **Planaren Kudeaketa, Koordinazio eta Jarraipenerako Batzorde Teknikoarekin** eta **Berdintasunerako arloen arteko Batzorde Politiko eta Teknikoarekin**, eta lau hilean behin bilerak **Berdintasunaren aldeko Donostiako Emakumeen Kontseiluarekin**.
- Urtero egingo da **Jarraipenaren Txostena**, jarraipenerako tresnaren bitartez bilduriko informazioa eta Planaren Kudeaketa, Koordinazio eta Jarraipenerako Batzorde Teknikoarekin eta Berdintasunerako arloen arteko Batzorde Politiko eta Teknikoarekin eginiko bileretan bilduriko informazio kualitatiboa aztertzeko.

## EBALUAZIOA

- 2018ko azken seihilabetean ekingo zaio Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren ebaluazioari, eta urteroko jarraipen txostenak, eraginaren adierazleak, tresnan bilduak, eta III. Planaren kudeaketa eta koordinaziorako egituretan bilduriko informazio kualitatiboa hartuko dira kontuan horretarako.